

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

#### **366/2018 Foru Agindua, ekainaren 20koa. Honen bidez, Lehiaketarako deia lanpostu hutsak betetzeko Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean**

Zenbait lanpostu huts daude Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean. Lanpostu horiek funtzionarioek betetzeko gorde dira, diruz hornituta daude aurrekontuetan, eta lehiaketa bidez beteko dira, indarrean dagoen Lanpostuen Zerrendan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundia- ren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lehiaketarako deia egitea lanpostuak betetzeko Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean.

Bigarrena. Onartzea deialdia arautuko duten oinarriak, hartan eskainiko diren lanpostuak, berariazko merezimenduen fasea duten lanpostuen zerrenda (lanpostuko jardunarekin lotutako proba praktikoa bat edo gehiago dutenak) eta, lehiaketan parte hartzeko, bete beharreko eskaera orria. Horiek guztiak I., II., III. eta IV. eranskinetan adierazten dira, hurrenez hurren.

Hirugarrena. Deialdiaren xede diren lanpostuei esleitutako zeregin eta egitekoen zerrenda argitaratzea (V. eranskina).

Laugarrena. Deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko, 15 egun baliouduneko epea irekitzea. Epe hori foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena), betiere 39/2015 Legearen 123. artikuluekin loturik (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenarena).

Gasteiz, 2018ko ekainaren 20a

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Enplegu, Merkataritza eta Turismo  
Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila  
Departamento de Fomento del Empleo,  
Comercio y Turismo y de Administración Foral

Funtzio Publikoko Zuzendaritza  
Dirección de Función Pública

## I. ERANSKINA

### 2018KO DEIALDIAREN OINARRIAK, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREKO LANPOSTUAK LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO.

#### LEHENENGOA. - DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen helburua da II. eranskinean zerrendatzen diren lanpostu hutsak lehiaketa bidez betetzea.

Salbuespenez, deialdi honetan ez da egongo ondore faserik bete gabe geratu diren lanpostuekin edo lehiaketara atera direnak esleitzearen ondorioz hutsik geratu direnekin.

Oinarri hauek aplikatzekoak diren arauen menpe daude, eta bereziki hauen menpe:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, euskal funtzio publikoarena.
- 190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, onesten duena euskal administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, arautzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera.
- 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, onesten duena sartzeko, lanpostuak betetzeko eta mailaz igotzeko arautegi orokorra.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, arautzen dituena toki araubidearen oinarriak.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, onesten duena toki araubidean indarrean dauden ebazpenen testu bateratua.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena.
- 1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, finkatzen dituena hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako erregimen bereziko hizkuntza irakaskuntzen curriculumaren oinarritzko alderdiak.



- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailetara egokitzen dituena.

#### **BIGARRENA. - PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK**

Deialdi honetan parte hartu ahalko dute Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioek, baldin eta ondoko betekizunak betetzen badituzte deialdia ALHAOn argitaratzen den egunean:

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean edozein administrazio egoeratan izatea, eginkizun gabetze irmoan izan ezik, horrek irauten duen bitartean. Borondatezko eszedentziako administrazio egoeratik parte hartu ahal izateko, izan norberaren intereserako eszedentziatik edo izan familia bateratzekotik, berriro sartzeko behar den gutxieneko denbora igarota izan behar du.

2. Lanpostu zerrendan agertzen diren betekizunak betetzea. II. eranskinean zehazten dira, lanpostu bakoitzerako. Esleitutako lanpostuez jabetu arte bete beharko dira betekizunak.

3. Deialdi hau argitaratu aurreko bi urteetan behin betiko destinorik lortu ez izana, lehiaketa sistema, barne sustapen edo kanpoko hautaketa bidez.

Denbora muga hori ez da aplikatzekoa izango baldin eta hura amaitu baino lehen, lortutako lanposturako atxikipena galdu bada, lanpostua kendu delako edo titularrak lanpostuz aldatu delako gerora sortutako zioengatik, betetzen zuen lanpostuaren edukia aldatzea dela medio edo lanpostuan behar adinako errendimendua ez emateak bertan jarduteko erakutsitako ezgaitasuna tarteko.

Behin-behineko atxikipena duten funtzionarioak behartuta daude, egoera horretan dauden bitartean, lehiaketa honetan parte hartzera bere eskala, azpieskala eta, hala badagokio, klasekoak diren lanpostuak betetzeko. Lehiaketa honetan eskatutako destinoak lortzen ez badituzte eta euren behin-behineko atxikipena lekualdatzen bada lehiaketan eskaintako lanpostuen esleipenen ondorioz, lehiaketan eskatu eta lortutako lanpostuak esleitu ondoren hutsik geratzen diren euren eskala, azpieskala eta, hala badagokio, klaseko lanpostu hutsetan izango dute behin-behineko atxikipena.

Lanpostua kendu edo lanpostuaren edukia gerora aldatu izanaren ondorioz lanpostu gabetu edo lanpostuz aldatuak izan diren eta behin-behinean lanpostu batera atxikita dauden funtzionarioek lehentasuna izango dute lehiaketa honetan kendu edo aldatu



zen lanpostuaren maila bereko edo beheragoko destino osagarria duten eta herri berean dauden lanpostu hutsak betetzeko. Lehiaketa honetan behin betiko lanpostua lortzeko ez du eragotziko datozen bi urteetan deitzen diren berariazko lehiaketetara aurkeztea.

Aurreko paragrafoan jarritakoa gorabehera, lanpostu batera behin-behinean atxikita dauden funtzionarioek ere lehentasuna izango dute behin-behineko atxikipenean dauden lanpostuari dagokion destino osagarri bera edo baxuagoko euren eskalako, azpieskalako edo, hala badagokio, klaseko lanpostua eskuratzeko, behin eta bakar-bakarrik lehiaketa honetan, baldin eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lanpostuak lehiaketa bidez betetzeko 2013ko deialdian parte hartu arren, destinorik lortu ez bazuten.

Lanpostu batera lehentasun eskubide desberdineko bi pertsona edo gehiago aurkezten badira, lehentasuna izango du lanpostua kendu edo lanpostuaren edukia gerora aldatu izanaren ondorioz lanpostuz aldatuak izatetik datorkiona lehentasun hori. Lehentasun eskubide bereko bi pertsona edo gehiago aurkezten badira, berriz, merezimenduak baloratuko dira eta puntuazio handiena lortzen duenari esleituko zaio.

Talde bereko edo desberdineko eskala edo azpieskala bi edo gehiagoko lanpostua dutenek horietako bakar batetik baino ezin izango dute parte hartu lehiaketan.

Uztailaren 17ko 4/1992 Legearen Hamabigarren Xedapen Gehigarrian aipatzen diren eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko aurreko lehiaketetan lanposturik lortu ez zuten funtzionarioek lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute eskala, azpieskala eta klase hauetako lanpostuak betetzeko:

- a) Administrazio Orokorreko Eskala, Menpekoen Azpieskala.
- b) Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezietako Azpieskala, Lanbideetako Langileen klasea.

Parte hartu ahal izateko lanpostuen zerrendan zehaztuta dauden betekizunak bete behar dituzte. Deialdi honetan parte hartu eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lanpostuez jabetzen badira, banaka eta mugikortasun eskubidea errazteko xede bakarrarekin sartuko dira eskatzen diren titulazio baldintzak eta talde horri dagokion lanpostua betez funtzionalki dagokien Arabako Foru Aldundiko eskala, azpieskala eta klasean.

Uztailaren 17ko 4/1992 Legearen Hamabigarren Xedapen Gehigarrian aipatzen diren eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko aurreko lehiaketetan



lanpostua lortu zuten funtzionarioek lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute banaka sartu den eskala, azpieskala eta klaseetako lanpostuak betetzeko.

#### **HIRUGARRENA.- KOMUNIKAZIOAK ETA ARGITALPENAK**

Prozedura honek sortzen dituen komunikazio eta argitalpenak intraneten (Gurenet, Funtzio publikoa atala) argitaratuko dira.

#### **LAUGARRENA. - PARTE HARTZEKO ESKAERA**

Lehiaketan parte hartzeko eskaerak deialdi honen IV. eranskinean jasotako eredu normalizatuan aurkeztuko dira, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari zuzenduta, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza, 5-behea; 01001 Gasteiz) edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 16.4 artikuluan adierazitako bulegoetako edozeinetan. Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaeran honako hauek jarri behar dira:

- a) Deialdi honen bigarren oinarrian eskatzen diren betekizunak betetzen direneko aitortpena.
- b) Eskatzen diren lanpostuak, lehentasun hurrenkeran.
- c) Euskara azterketa egin nahi dutenek eskaera orrian adierazi behar dute nahi hori.
- d) Alegatzen diren merezimenduak. Merezimenduak ziurtagiri bidez egiaztatu behar dira, eta ezin da alegatu haiek badaudela Arabako Foru Aldundiaren administrazio agiritegietan.

Ez da honako hauen ziurtagiririk aurkeztu beharko:

- a) Arabako Foru Aldundiak aitortutako antzinasuna.
- b) Arabako Foru Aldundiko lanpostuetan egondako denbora, egindako lana baloratzeko.
- c) Norberaren gradu finkatua.

Destinoak esleitzeko zorrotz jarraituko da eskaeran adierazitako lehentasun hurrenkerara. Uko edo atzera egiteak, egitekotan lehiaketa osoari egin beharrekoak,



Balorazio Batzordeari eskatuko zaizkio alegazioetarako epea amaitu baino lehen, hain zuzen ere lehiaketako puntuazioak behin-behinean argitaratutakoan egitekoak diren alegazioen epea amaitu baino lehen, hori baita destinoak esleitu aurretik egin behar den urratsa.

Merezimenduak, salbu eta zortzigarren oinarrian arautzen den euskara ezagutza, baloratzeko erreferentzia data deialdia ALHAOn argitaratzen den eguna izango da. Ez dira kontuan hartuko eskaerak aurkezteko epearen barruan egiaztatzen ez diren merezimenduak, nahiz eta haien aipamena egin eskaeran.

Ezintasunen bat duten funtzionarioek lehiaketan parte hartzeko eskaera orriarekin batera adierazi ahal izango dute eskatzen dituzten lanpostuak egokitzeko beharra. Bana-banako elkarrizketan balorazio batzordeak beharrezkoa deritzon informazioa eskatu ahal izango dio interesdunari eskatu duen egokitzapenari begira, bai eta eskumena duten organo teknikoek irizpena ere egokitzapen beharrezko gainean eta lanpostu jakinaren zeregin eta egitekoekiko bateragarritasunaren gainean.

#### **BOSGARRENA. - ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDAK**

Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak intraneten (Gurenet) emango du argitara lanpostu bakoitzeko onartuen eta baztertuen zerrenda, eta 3 egun balioduneko epea irekiko da, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko. Epe hori igaro eta erreklamazioak ebatzita -horrelakorik egonez gero-, argitara emango da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

#### **SEIGARRENA. - BALORAZIO BATZORDEAK.**

Merezimenduak, bai orokorrak bai berariazkoak, balorazio batzorde batek edo bat baino gehiagok balioetsiko dituzte. Haietako kideak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak izendatuko ditu. Batzordearen osaera funtzionario onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da, hartako kideen egokitasuna eta gaitasuna bermatuko da eta, ahal den neurrian, baita emakumeen eta gizonen arteko oreka ere.

Batzordeburuak, idazkariak eta hiru batzordekideek osatuko dute batzordea.

Balorazio batzordeetako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.



Balorazio batzordeetako kide izango direnen egokitasuna eta gaitasuna bermatzeko, deialdia egiten duen organoak zainduko du kideek deitutako lanpostuen eginkizunen edukia ezagut dezaten, bai eta deialdian erabiltzen diren hautaketarako eta merezimenduak egiaztatzeko teknikak ere. Orobat, berariazko merezimenduen lehiaketa denean, ahalegina egingo da gutxienez kideen erdia deitutako lanpostuen eginkizun arloan jardundakoa izan dadin edo arlo horretako ezagutzak izan ditzan.

Balorazio batzordeek ebatziko dituzte arau hauek aplikatzean sor litezkeen zalantza guztiak, bai eta aurreikusi gabeko kasuetan zer egin ere.

Boto berdinketarik gertatuz gero, batzordeburuak izango du kalitate botoa.

Balorazio batzordeak ezin izango dira osatu eta ezin izango dute jardun, gutxienez hiru kide bertan ez badaude, titularrak zein ordezkioak, eta gainera, batzordeburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute nahitaez.

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako egoeraren bat gertatuz gero, balorazio batzordeetako kideek ezingo dute lan horretan jardun, eta deialdia egin duen organoari horren berri eman beharko diote. Gainera, izangaiak kideak errefusatu ahal izango dituzte.

Hautaketa prozesuko edozein unetan balorazio batzordeek jakiten badute izangairen batek deialdian ezarritako betekizunen bat edo gehiago ez duela betetzen, betiere interesdunari entzun ondoren, izangai hori bazter dezala proposatu beharko dio organo eskudunari, izangaiak eskaeran azaldutako oker edo faltsukeriak adierazita.

Balorazio batzordeek hautaketa prozesuko edozein unetan eskatu ahal izango dituzte alegatutako merezimenduen balorazio prozesuaren edozein fasetan eragina duten jatorrizko agiriak.

Jarduteko prozedura une oro lotuko zaio urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, ezarritakoari.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketetan, IVAPeko ordezkari bat ere arituko da.

Balorazio batzordeek adituak izendatu ahal izango dituzte; aditu horiek aholkulari moduan arituko dira beren espezialitateko gaietan, hitzarekin baina botorik gabe.



## **ZAZPIGARRENA. - LEHIAKETA AURRERA ERAMATEA**

Lehiaketak honako fase hauek izango ditu: A) Merezimendu orokorren fasea, lanpostu guztietarako. B) Berriazko merezimenduen fasea, deialdiaren III. eranskinean zerrendatzen diren lanpostuetarako.

### **A) Merezimendu orokorrak**

Fase horretan, gehienez ere, 13 puntu lortu ahal izango dira. Balorazioa honela egingo da:

#### **1. Administrazio publikoan eginiko lana**

Lehiatzaile bakoitza aritu izan den lanpostuen eduki teknikoaren (egitekoak eta zereginak) eta eskatzen dituenen arteko antzekotasuna baloratuko da.

Gehienez ere, 4,25 puntu lortu ahal izango dira:

- a) 0,05 puntu hilabete oso bakoitzeko, gehienez 4,25 puntu, bete beharreko zeregin eta eginkizunak kontuan hartuta, lehiatzen den lanpostuaren eduki tekniko bereko lanpostuetan egindako lanagatik.
- b) 0,025 puntu hilabete oso bakoitzeko, gehienez 3 puntu, lehiatzen den lanpostuaren eduki teknikoa eta lanean egondako lanpostuena antzekoa denean.
- c) 0,010 puntu hilabete oso bakoitzeko, gehienez 1,5 puntu, titulazio talde eta azpitalde berberari dagozkion lanpostuetan egindako lanagatik.

Aurreko b) eta c) idatz zatietako emaitzak batuta, gehienez ere, 3 puntu lortu ahalko dira.

#### **2. Antzintasuna**

Aintzat hartuko da administrazio publikoen zerbitzura egindakotzat aitorturiko antzintasuna. 3,5 puntu lor daitezke gehienez, hain zuzen ere, 0,012 puntu lanean egindako hilabete oso bakoitzeko.

#### **3. Norberaren gradu finkatuaren balorazioa**

Gradu finkatuarengatik, gehienez ere, 1,5 puntu emango dira, ondorengo banaketaren arabera:

- Eskatutako lanpostuarena baino bi maila altuagoa edo are altuagoa: 1,5 puntu





- Eskatutako lanpostuarena baino maila bat altuagoa: 1,25 puntu
- Eskatutako lanpostuaren maila berdina: 1 puntu
- Eskatutako lanpostuaren maila baino bat beheragoa: 0,75 puntu
- Eskatutako lanpostuarena baino bi maila beheragoa: 0,50 puntu

#### 4. Ikasketa tituluak

Lehiatzen den lanpostua lortzeko beharrezkoak direnez bestelako ikasketa titulu ofizialak balioetsiko dira, lanpostu horren eginkizun arloarekin duten lotura kontuan hartuta, gehienez 2 punturaino, ondorengo baremoaren arabera:

- Doktore titulua: 1,50 puntu.
- Lizentzia, ingeniaritza, arkitektura edo gradu eta master baliokidea: 1,25 puntu.
- Ingeniaritza teknikoa, unibertsitateko diploma, arkitektura teknikoa edo gradu baliokidea: 1 puntu.
- Masterrak, diplomak eta unibertsitateen berezko bestelako tituluak, 300 ordu edo gehiagokoak: 0,75 puntu.
- Masterrak, diplomak eta unibertsitateen berezko bestelako tituluak, 200 ordu edo gehiagokoak: 0,50 puntu.
- Bigarren mailako Lanbide Heziketa, edo baliokidea: 0,50 puntu.
- Lehen mailako Lanbide Heziketa, edo baliokidea: 0,25 puntu.

Ez dira balioetsiko lanposturako derrigorrezkoa den titulua lortzeko beharrezkoak izan diren titulazio apalagoak, ezta merezimendu gisa balioetsi direnak ere.

Hainbat titulazio azpitaldetara irekitako lanpostuetan, azpitalde desberdinetako funtzionarioak aurkezten badira eta goi mailako azpitaldekoei titulazio zehatza eskatu bazitzaien karrerako funtzionario sartzeko, titulazio hori ez zaio balioetsiko inolako lehiakideri.

#### 5.- Prestakuntza ikastaroak.

Eskatzen diren lanpostuen berezko eginkizunekin edo horietan jarduteko eskatzen diren trebetasunekin lotura duten gaietan jasotako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak balioetsiko dira. Ez dira sartuko atal honetan hizkuntza ikastaroak.

- A1 eta A2 azpitaldeei (A eta B taldeak) dagozkien lanpostuak:

0,50 puntu, gutxienez 200 orduko ikastaro bakoitzeko.



0,25 puntu, gutxienez 100 orduko ikastaro bakoitzeko.

- C1 eta C2 azpitaldeei eta talde profesionali (C, D eta E taldeak) dagozkien lanpostuak:

0,25 puntu, gutxienez 100 orduko ikastaro bakoitzeko.

0,15 puntu, gutxienez 50 orduko ikastaro bakoitzeko.

Ziurtagirietan ordu kopurua zehaztu beharko da, bestela ez dira baloratuko.

Informatikan ez dira baloratuko ofimatikako oinarrizko ikastaroak, ez eta balorazio batzordeak lanerako oinarrizkotzat jotzen dituenak ere. Arabako Foru Aldundiaren berezko informatika aplikazioetako prestakuntza ere ez da baloratuko.

Ez dira baloratuko errepikatutako ikastaroak, ez eta segurtasuneko oinarrizkoak ere.

Ez dira baloratuko bukatu gabeko ikasgaiak, kredituak eta ikastaroak.

Atal honetan, gehienez ere puntu bat lortu ahal izango da.

#### **6.- Hizkuntzak**

Europar Batasuneko hizkuntza ofizialen balorazioa, EAEko hizkuntza ofizialak kontuan izan gabe, gehienez, 0,75 puntukoa izango da. Taula honen arabera egingo da:

- B-1: 0,15 puntu
- B-2: 0,25 puntu
- C-1: 0,50 puntu
- C-2: 0,75 puntu

#### **B) Berriazko merezimenduak**

Deialdiaren III. eranskinean ezartzen denaren arabera eta lanposturako egokitasuna baloratzeari begira, lanpostuko jardunarekin lotutako proba praktikoa bat edo gehiago egin ahal izango da.

Fase horretan, gehienez ere, 13 puntu lortu ahal izango dira.

Berriazko probatik salbuesteko kasu bereziak:



- a) Legelari lanpostuetara lehiatzen denean, ez dute proba edo probak egin beharko lanpostu berdinetako titularrek.
- b) Basozain lanpostuetara lehiatzen denean, ez dute proba edo probak egin beharko lanpostu berdinetako titularrek.
- c) Moldiztegi Zerbitzuko C1 eta C2 (C eta D taldeak) azpitaldeetara irekitako Administrazio Bereziko lanpostuetara lehiatzen denean, ez dute proba edo probak egin beharko talde honetako pertsonak: Administrazio Bereziko eskala, azpieskala teknikoa, teknikari laguntzaileen klasea, LH II Arte Grafikoak.
- d) Mantentzeko ofizialen lanpostuetara lehiatzen denean, ez dute proba edo probak egin beharko mantentzeko ofizial izateko karrerako funtzionario sartzeko hautaketa prozesu bat gainditu dutenek.
- e) Honako honetako langileek ez dute proba edo probak egin beharko: Administrazio Bereziaren Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Eginkizun Berezien Klasea, karrerako funtzionario izendatu zuten lanpostuaren ezagutza arloko lanpostuetara lehiatzen badira.
- f) Laborategiko analista (laborategi orokorra, abeltzaintzako laborategia eta enologia laborategia) lanpostuetara lehiatzen denean, ez dute proba edo probak egin beharko talde honetako pertsonak: Administrazio Bereziko eskala, azpieskala teknikoa, teknikari laguntzaileen klasea, LH II Kimika.
- g) Zerga arloko kudeaketa teknikari lanpostuetara (zuzeneko zergak, zeharkako zergak, katastroa, zergak ikuskatzeko teknikaria eta Guardiako bulegoko arduraduna) lehiatzen denean, ez dute proba edo probak egin beharko gaur egun ezagutza arlo bereko lanpostuen titular direnek.

Aurreko zazpi kasuetan, lanpostu eta destino berbera eskatzen badute bi pertsonak edo gehiagok, batek edo batzuek proba egin beharrezkin eta beste bat edo batzuk proba egitekin salbuetsita, proba egin beharra daukatenean hura egin eta gainditu ostean, lanpostua esleitzeko bakar-bakarrik hartuko dira kontuan merezimendu orokorrak. Lehiatzen direnek proba edo probak egin beharra badaukate, baloratu egingo da bertan ateratako puntuazioa.

**Destinoa esleitzeko lortu beharreko gutxieneko puntuazioa:**

Gutxienez 1,5 puntu lortu beharko dira merezimendu orokorren fasean eta, hala badagokio, 6,50 puntu berariazko merezimenduan.

**ZORTZIGARRENA.- EUSKARAZ JAKITEA**



Derrigortasun data iraungita duten lanpostuak eskuratzeko nahitaezkoa izango da dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzea.

Gainerako lanpostuetarako, euskara merezimendu gisa baloratzeko kontuan izango da eskatzen den lanpostuaren hizkuntza eskakizuna, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duenak, ezarritakoari jarraiki eta baremo honen arabera:

Lanpostuaren HE	Egiaztatutako HE	Gehienezko puntuazioarekiko batez bestekoa
1, 2	2, 3, 4	6,25
1, 2	1	5,00
3, 4	4	13,75
3, 4	3	11,00
3, 4	2	6,25
3, 4	1	5,00

Euskararen hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko IVAPen ziurtagiriak edo ziurtagiri baliokideak aurkeztuko dira edo parte hartu Arabarako deialdi bateratuan, 2018ko irailaren 16a eta urriaren 15a bitartean egingo dena seguruenik.

2018ko urriaren 15a baino lehen lortutako ziurtagiri edo hizkuntza eskakizunak ere onartuko dira.

#### **BEDERATZIGARRENA.- BERDINKETA, LEHIAKETA OSOKO PUNTUAZIOAN**

Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek baliatuko dira berdinketa apurtzeko:

- a) Berdinketarik izatekotan, lehentasuna emango zaie emakumeei, emakumeak ehuneko 40 baino gutxiago diren lanpostuetan, salbu eta beste izangaiengan sexuagatik bereizkeriazkoak izan gabe neurri hau ez aplikatzea bidezko egiten duen arrazoirik izanez gero, hala nola lana lortzeko eta lanean sustatzeko zailtasun bereziak dituzten beste gizatalde batzuetakoak izatea.
- b) Berdinketak jarraituz gero, irizpide hauei jarraituko zaie:



1. Berariazko merezimendudun lanpostuak: Lehendabizi, berariazko merezimenduen atalean lortutako puntuazioak hartuko dira kontuan. Berdinketak jarraitzen badu, gainerako lanpostuetarako finkatutako irizpideak aplikatuko dira.
2. Gainerako lanpostuak: Kontuan hartuko da atalen hurrenkerari jarraituz lortutako puntuazioa:
  1. Egindako lanaren balorazioa.
  - 2º Titulazio akademikoak:
  - 3º Prestakuntza ikastaroak.
  4. Hizkuntzak
- c) Oraindik ere berdinketak jarraitzen badu, administrazio publikoetan egindako zerbitzuengatik antzinatasun gehien egiaztatzen duenaren alde egingo da.
- d) Oraindik ere berdinketa apurtzeko irizpide gehiagoren beharrik badago, balorazio batzordeak finkatuko lituzke, merezimenduaren printzipioari jarraiki.

#### **HAMARGARRENA. - EMAITZAK ARGITARATZEA**

Merezimenduen balorazioa argitara emango da intraneten (Gurenet) eta balorazio batzordearen aurrean erreklamazioak aurkezteko 10 egun balioduneko epea emango da, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### **HAMAIKAGARRENA. - DESTINOAK ESLEITZEA**

Lanpostuak esleitzeko hurrenkera lortutako puntuazio osotik eta lehiatzaileek adierazi dituzten lehentasunetatik ondorioztatzen dena izango da; hori guztia, destino esleipenerako lehentasunezko eskubideari kalterik egin gabe, lehenago zeukaten lanpostua kentzearen ondorioz lanpostu bati behin-behineko moduan atxikita daudenei, bai eta 2013ko lehiaketan parte hartu arren, destinatorik lortu ez eta lanpostu bat behin-behineko moduan atxikita dauden funtzionarioen lehentasunezko eskubideari ere.

Irizpide horiekin bat etorritz, balorazio batzordeak, aurkeztu zaizkion erreklamazioak ebatzi ondoren, destinoa esleitzeko proposamena egingo dio Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuari.

Lehiaketan lortutako lanpostuaz jabetu beharko da, eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko da, egoera hauetan izan ezik: lanpostuaz jabetzeko epea amaitu baino lehen deialdi publikoaren bitartez beste destino bat lortu izana; gerora sortutako ezgaitasuna; zerbitzu aktiboa ez den beste egoera batera iragan



izana; edo bestelako ezohiko zioak, behar bezala justifikatuak eta deialdia egiten duen organoak ontzat emanak.

Lehiaketari buruzko ebazpenak berekin badakar funtzionarioak etxebizitzaz aldatu beharra, behar horrek borondatezko izaera izango du eta funtzionarioak ez du kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

#### **HAMABIGARRENA. - IZENDAPENA ETA LANPOSTUAZ JABETZEA**

Jatorrizko lanpostua lehiaketaren ebazpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean utziko da. Salbuespenez, epe hori luzatu ahal izango da behar bezala arrazoitutako egoera batzuetan. Zerbitzuko arrazoiengatik jatorrizko lanpostua uztea atzeratu zaionari lanpostu berrian egindakotzat kontatuko zaio jatorrizkoa benetan utzi arte igarotzen den denbora.

Lanpostuaz jabetzeko data jatorrizkoa uzten den egunaren hurrengoa izango da. Ebazpenak zerbitzu aktibora itzultzea badakar, lanpostuaz jabetzea lehiaketaren ebazpena argitaratzen den egunaren hurrengo hiru egun baldiodunen barruan egin beharko da.

Antolamenduko zioengatik hala egitea komeni denean, esleipen ebazpenean finkatu ahal izango dira esleipendunen jatorrizko lanpostua uzteko eta lanpostu berriaz jabetzeko data zehatzak.

#### **HAMAHIRUGARRENA. - AURKA EGITEA**

Oinarri hauek, deialdia bera eta horretatik eta balorazio batzordearen jardunetik sortzen diren administrazio egintza guztien aurka egin ahal izango da, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako kasu eta moduetan.

KODEA	IZENA	MOTA	DEJERREG.		BET.	ERA.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK			ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA	
			BZT.	PREST.			ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O		BERARIAZKO OSAGARRIA
			JARD.	JARD.			ADIM.	TALDEA	ESKAKIZUNA				
<b>02 Saila DIPUTATU NAGUSIA</b>													
<b>02.1 Zuzendaritza DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEA</b>													
1296.001	GARDENTASUN ETA PARTAIDETZA TEKNIKARIA	EB B	L	AFA	A 1	221	3	01/01/2017	28.694,40	25	28.694,40	VITORIA-GASTEIZ	
1296.002	GARDENTASUN ETA PARTAIDETZA TEKNIKARIA	EB B	L	AFA	A 1	221	3	01/01/2017	28.694,40	25	28.694,40	VITORIA-GASTEIZ	
<b>02.1.03 Zerbitzua LEGE AHOLKULARITZA</b>													
1142.004	LEGELARIA	EB B	L	AFA	A 1	11	240		32.505,90	26	32.505,90	VITORIA-GASTEIZ	
1142.009	LEGELARIA	EB B	L	AFA	A 1	11	240		32.505,90	26	32.505,90	VITORIA-GASTEIZ	
2009.003	LEGE ZERBITZUETAKO ADMINISTRARIA	EB B	L	AFA	C 1	12	240	01/01/2016	17.596,20	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ	
<b>02.1.05 Zerbitzua ARABAKO LEGE ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEA</b>													
2009.004	LEGE ZERBITZUETAKO ADMINISTRARIA	EB B	L	AFA	C 1	12	2	31/12/2009	17.596,20	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ	
<b>02.1.06 Zerbitzua IDAZKARITZA TEKNIKOA ETA HERRITARRENTZAKO ARRETA</b>													
2007.001	ADMINISTRAZIO KUDEAKETAKO ADMINISTRARIA	EB B	L	AFA	C 1	12	2		17.596,20	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ	
<b>02.1.07 Zerbitzua BERDINTASUNA, LANKIDETZA ETA KULTURARTEKOTASUNA</b>													
1212.002	AUKERA BERDINTASUNEN TEKNIKARIA	EB B	L	AFA	A 1	211	3	31/12/2006	27.912,15	24	27.912,15	VITORIA-GASTEIZ	
1267.001	LANKIDETZAKO KUDEATZAILERTEKNIKARIA	EB B	L	AFA	A 1	221	3	01/01/2008	27.912,15	24	27.912,15	VITORIA-GASTEIZ	

Literalen taula, ALHAOn (48 z) argitaratutakoa, 2018ko apirilaren 27an

PAG. 1

KODEA	IZENA	MOTA	DEJERREG.		BET.	LANTOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA			
			BZT.	PREST.		ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO		D.O	BERARIAZKO	
			JARD.	JARD.	ERA.	ADIM.	TALDEA	AZPIESKALA	TITULUA	ESKAKIZUNA	EZAGUPENAK	MAILA	OSAGARRIA
1267.002	LANKIDETZAKO KUDEAKETA TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 1	221		3		24	27.912,15
										01/01/2008			
1268.001	GIZARTE SUSTAPENAREN ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 2	221		3		19	18.810,30
										01/01/2008			
<b>10 Saila EKONOMIA GARAPENA ETA LURRALDE OREKA</b>													
<b>10.2 Zuzendaritza LURRALDE OREKA</b>													
<b>10.2.02 Zerbitzua TOKI ADMINISTRAZIOA</b>													
1141.002	TOKI ERAKUNDEETAKO EKONOMIA AZTERLANETAKO TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 1	11	230	3	200	25	28.694,40
								211	230	01/01/2008			
1368.001	TOKI ERAKUNDEETAKO EKONOMIA ETA KONTABILITATE TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 1	11	230	3	200	25	28.694,40
								211	230				
<b>10.2.03 Zerbitzua TOKIKO ETA UDALERRIAZ GAINDIKO AZPIEGITUREN SUSTAPENA ETA FINANTZAKETA</b>													
1141.004	TOKI ERAKUNDEETAKO EKONOMIA AZTERLANETAKO TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 1	211	230	3	200	25	28.694,40
										01/01/2015			
1297.001	FORU PLANEKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	EB B			L	AFA	C 1	213	419	2	200	17	18.341,10
<b>10.2.04 Zerbitzua TOKI FINANTZAKETA ETA ADMINISTRAZIO KUDEAKETA</b>													
2010.001	TOKI ADMINISTRAZIOKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12		2		17	17.596,20
<b>10.6 Zuzendaritza EKONOMIA GARAPENA</b>													

Literalen taula, ALHAOn (48-zh) argitaratutakoa, 2018ko apirilaren 27an

PAG. - 2



KODEA	IZENA	MOTA	DED.ERREG.		BET.	ERA.	AFI	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK			ORDAINSARIAK		LANTOKI/HERRIA		
			BZT.	PREST.				ATXIKIPENA	ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO		D.O	BERARIAZKO
			JARD.	JARD.	JARD.	JARD.	ADIM.	TALDEA	AZPIESKALA	TITULUA	ESKAKIZUNA	EZAGUPENAK	MAILA	OSAGARRIA	
<b>10.6.01 Zerbitzua EKONOMIA GARAPENA</b>															
1124.001	INDUSTRIA SUSTAPENeko	EB	B		L		AFA	A 1	11	230	4		25	28.694,40	VITORIA-GASTEIZ
	TEKNIKARIA								211	240					
										230					
										240					
										252					
<b>20 Saia OGASUNA, FINANTZAKETA AURREKONTUAK</b>															
<b>20.1 Zuzendaritza OGASUNA</b>															
<b>20.1.01 Zerbitzua ZERGADUNEKIKO HARREMANAK</b>															
1188.001	GUARDIAKO BULEGOAREN	EB	B		L		AFA	A 1	11		3		25	29.141,40	LAGUARDIA
	ARDURADUNA								221						
2015.002	ZERGADUNEKIKO	EB	B		L		AFA	C 1	12		2		17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
	HARREMANETAKO										01/12/1994				
	ADMINISTRARIA														
2015.009	ZERGADUNEKIKO	EB	B		L		AFA	C 1	12		2		17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
	HARREMANETAKO														
	ADMINISTRARIA														
2016.002	LAUDIOKO BULEGOKO	EB	B		L		AFA	C 1	12		2	200	17	18.490,05	LLODIO
	ADMINISTRARIA										01/01/2013				
<b>20.1.01.1 Añala ERROLDA KUDEAKETAKO ETA JAKINARAZPENETAKO UNITATEA</b>															
2015.010	ZERGADUNEKIKO	EB	B		L		AFA	C 1	12		2		17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
	HARREMANETAKO														
	ADMINISTRARIA														
2015.012	ZERGADUNEKIKO	EB	B		L		AFA	C 1	12		2		17	18.490,05	VITORIA-GASTEIZ
	HARREMANETAKO										01/01/2015				
	ADMINISTRARIA														
<b>20.1.03 Zerbitzua ZERGA ARAUDIA</b>															
2013.001	ZERGA ARAUDIKO	EB	B		L		AFA	C 1	12		2		17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
	ADMINISTRARIA														

Literalen taula, ALHAOn (48 zt) argitaratutakoa, 2018ko apirilaren 27an

PAG - 3

KODEA	IZENA	MOTA	DED.ERREG.		BET.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK			ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA		
			BZT.	EZORD.		ATXIKIPENA	ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO EZAGUPENAK		D.O	BERARIAZKO OSAGARRIA
<b>20.1.04 Zerbitzua ZERGA SARRERAK KUDEATZEA</b>													
1164.001	ZERGABILKETAKO TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 1	11	230	4	25	28.694,40	VITORIA-GASTEIZ
								211	230				
1164.002	ZERGABILKETAKO TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 1	11	230	4	25	28.694,40	VITORIA-GASTEIZ
								211	230				
1333.002	ZERGABILKETAKO KUDEAKETA ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12		2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
2041.002	ZERGABILKETAKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12		2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
2041.006	ZERGABILKETAKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12		2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
2041.014	ZERGABILKETAKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12		2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
<b>20.1.05 Zerbitzua ZUZENEKO ZERGAK</b>													
1447.020	ZUZENEKO ZERGETAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	EB B			L	AFA	C 1 C 2	12		2	15	14.957,25	VITORIA-GASTEIZ
								13		01/01/2011			
<b>20.1.05.2 Atala PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN ETA ONDAREAREN GAINEKO ZERGAK</b>													
1157.001	ZUZENEKO ZERGETAKO ZERGA KUDEAKETA TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 1	11		3	25	28.694,40	VITORIA-GASTEIZ
								221					
1447.003	ZUZENEKO ZERGETAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	EB B			L	AFA	C 1 C 2	12		2	15	14.957,25	VITORIA-GASTEIZ
								13		01/12/1994			
<b>20.1.06 Zerbitzua ZEHARKAKO ZERGAK</b>													
1331.004	ZEHARKAKO ZERGETAKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12		2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
2012.001	ZEHARKAKO ZERGETAKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12		2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
										31/12/1999			

Literalen taula, ALHAOn (48 zt) argitaratutakoa, 2018ko apirilaren 27an

PAG. 4

KODEA	IZENA	MOTA	DED. ERREG.		BET.	LAMPSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIK		LANTOKI HERRIA			
			BZT.	EZORD.		ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	D.O		BERARIAZKO		
			JARD.	JARD.	ERA.	ADIM.	TALDEA	AZPIESKALA	TITULUA	ESKAKIZUNA	MAILA	OSAGARRIA	
<b>II. ERANSKINA</b>													
<b>LANPOSTUEN ZERRENDA</b>													
<b>LEKUALDATZE LEHIAKETA</b>													
<b>Arabako Foru Aldundia</b>													
<b>Diputación Foral de Álava</b>													
<b>20.1.06.2 Alata BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA ETA ZERGA BEREZIAK</b>													
2012.004	ZEHARKAKO ZERGETAKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12		2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
2012.007	ZEHARKAKO ZERGETAKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12		2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
<b>20.1.07 Zerbitzua UDAL ZERGAK ETA KATASTROA</b>													
1160.003	UDAL ZERGA ETA KATASTROKO ZERGA KUDEAKETA TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 1	11	221	4	25	28.694,40	VITORIA-GASTEIZ
1222.003	KATASTROKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 2	212	321	3	22	28.804,65	VITORIA-GASTEIZ
2011.002	UDAL ZERGA ETA KATASTROKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12		2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
2011.006	UDAL ZERGA ETA KATASTROKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12		2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
2011.007	UDAL ZERGA ETA KATASTROKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12		2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
<b>20.1.08 Zerbitzua DIRUBILKETA</b>													
1277.002	IKUSKATZEKO KUDEAKETAKO TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 1	11	221	3	25	28.694,40	VITORIA-GASTEIZ
<b>20.2 Zuzendaritza FINANTZAK ETA AURREKONTUAK</b>													
<b>20.2.01 Zerbitzua KONTUHARTZAILETTA ETA KONTROLA</b>													
1137.015	EKONOMIA ETA AURREKONTU KONTROLEKO TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 1	11	230	3	25	28.694,40	VITORIA-GASTEIZ
2019.002	FINANTZETAKO KONTABILITATE ETA AURREKONTU ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12	240	01/01/2018	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
									230				
									240				

Literalen taula, ALHAOn (48 zt) argitaratutakoa, 2018ko apirilaren 27an

PAG. 5

KODEA	IZENA	MOTA	DEJERREG.		BET.	LANTZUAN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA		
			BZT.	PREST.		ESKALA	IKASKETA	BERARIAZKO	D.O		BERARIAZKO	
			JARD.	JARD.		ADIM.	TALDEA	ESKAKIZUNA	MAILA		OSAGARRIA	
<b>II. ERANSKINA</b>												
<b>LANPOSTUEN ZERRENDA</b>												
<b>LEKUALDATZE LEHIAKETA</b>												
Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava												
<b>20.2.01.1 Atala AUDITORETZA ETA KONTROLA</b>												
1137.001	EKONOMIA ETA AURREKONTU KONTROLEKO TEKNIKARIA	EB	B	L	AFA	A 1	11	230	3	25	28.694,40	VITORIA-GASTEIZ
<b>20.2.02 Zerbitzua KONTABILITATEA</b>												
1495.001	FINANTZA ETA AURREKONTUETAKO AGIRITEGIKO LAGUNTZAILEA	EB	B	L	AFA	C 2	13	240	2	13	13.780,50	VITORIA-GASTEIZ
2019.004	FINANTZETAKO KONTABILITATE ETA AURREKONTU ADMINISTRARIA	EB	B	L	AFA	C 1	12	230	2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
2019.005	FINANTZETAKO KONTABILITATE ETA AURREKONTU ADMINISTRARIA	EB	B	L	AFA	C 1	12	240	2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
<b>20.2.06 Zerbitzua ONDAREA</b>												
1179.003	ONDAREKO TEKNIKARI LEGELARIA	EB	B	L	AFA	A 1	11	240	3	25	28.694,40	VITORIA-GASTEIZ
<b>30 Sailea ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMOAREN SUSTAPENA ETA FORU ADMINISTRAZIOA</b>												
<b>30.2 Zuzendaritza FUNTZIO PUBLIKOAK</b>												
<b>30.2.01 Zerbitzua FUNTZIO PUBLIKOKO IDAZKARITZA TEKNIKOKO</b>												
1149.001	FUNTZIO PUBLIKOKO IDAZKARITZA TEKNIKOKO KUDEAKETA TEKNIKARIA	EB	B	L	AFA	A 1	211	230	3	25	28.694,40	VITORIA-GASTEIZ
<b>30.2.02 Zerbitzua GIZA BALIABIDEAK</b>												
1324.001	GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUKO ADMINISTRARIA	EB	B	L	AFA	C 1	12	240	2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
1324.004	GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUKO ADMINISTRARIA	EB	B	L	AFA	C 1	12	240	2	17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ


Literalen taula, ALHAOn (48 zt) argitaratutakoa, 2018ko apirilaren 27an

KODEA	IZENA	MOTA	DEJERREG.		BET.	LANTOKIAREN JARDUTERAKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA					
			BZT.	EZORD.		ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO		D.O	BERARIAZKO			
													JARD.	JARD.	ADIM.
2002.001	GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12			2		17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
<b>30.2.04 Zerbitzua EUSKARA</b>															
1290.001	HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 1	211	223		4		21	19.138,35	VITORIA-GASTEIZ
1290.002	HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 1	211	223		4		21	19.138,35	VITORIA-GASTEIZ
<b>30.3 Zuzendaritza ZERBITZU OROKORRAK</b>															
<b>30.3.01 Zerbitzua ANTOLAKETA</b>															
2004.001	ZERBITZU OROKORRETAKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12			2		17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
2004.005	ZERBITZU OROKORRETAKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12			2		17	17.596,20	VITORIA-GASTEIZ
<b>30.3.03 Zerbitzua LABORATEGI OROKORRA</b>															
1402.001	LABORATEGIKO LANGILEBURU ZUNDARIA	EB B			L	AFA	C 1 C 2	222			2	200	15	19.873,65	VITORIA-GASTEIZ
1520.006	LABORATEGIKO LANGILEA	EB B		2	L	AFA	C 2	222			1	200	14	17.639,85	VITORIA-GASTEIZ
1520.007	LABORATEGIKO LANGILEA	EB B		2	L	AFA	C 2	222			1	200	14	17.639,85	VITORIA-GASTEIZ
1520.008	LABORATEGIKO LANGILEA	EB B		2	L	AFA	C 2	222			1	200	14	17.639,85	VITORIA-GASTEIZ
1520.010	LABORATEGIKO LANGILEA	EB B		2	L	AFA	C 2	222			1	200	14	17.639,85	VITORIA-GASTEIZ
1520.011	LABORATEGIKO LANGILEA	EB B		2	L	AFA	C 2	222			1	200	14	17.639,85	VITORIA-GASTEIZ
1520.012	LABORATEGIKO LANGILEA	EB B		2	L	AFA	C 2	222			1	200	14	17.639,85	VITORIA-GASTEIZ

Literalen taula, ALHAOn (48 zt) argitaratutakoa, 2018ko apirilaren 27an

PAG - 7

II. ERANSKINA  
LANPOSTUEN ZERRENDA  
LEKUALDATZE LEHIAKETA



KODEA	IZENA	MOTA	DELERREG.		BET.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA
			BZT.	EZORD. JARD.		ESKALA	IKASKETA	BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O MAILA	
			JARD.	JARD.	ERA.	ESKALA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O MAILA	
1520.014	LABORATEGIKO LANGILEA	EB B	2		L	222	1	200	14	VITORIA-GASTEIZ
1520.015	LABORATEGIKO LANGILEA	EB B	2		L	222	1	200	14	VITORIA-GASTEIZ
1522.001	LABORATEGIKO LANGILE ZUNDARIA	EB B	2		L	222	1	201	14	VITORIA-GASTEIZ
1522.004	LABORATEGIKO LANGILE ZUNDARIA	EB B	2		L	222	1	201	14	VITORIA-GASTEIZ
<b>30.3.04 Zerbitzua IBILGAILUAK</b>										
1566.002	MAISU/MAISTRA MEKANIKOA	EB B			L	213 222	416 428	1 203	15	VITORIA-GASTEIZ
1566.003	MAISU/MAISTRA MEKANIKOA	EB B			L	213 222	416 428	1 203	15	VITORIA-GASTEIZ
1566.007	MAISU/MAISTRA MEKANIKOA	EB B			L	213 222	416 428	1 203	15	VITORIA-GASTEIZ
1566.008	MAISU/MAISTRA MEKANIKOA	EB B			L	213 222	416 428	1 203	15	VITORIA-GASTEIZ
1566.009	MAISU/MAISTRA MEKANIKOA	EB B			L	213 222	416 428	1 203	15	VITORIA-GASTEIZ

Literalen taula, ALHAOn (48-zh) argitaratutakoa, 2018ko apirilaren 27an


PAG. 8

KODEA	IZENA	MOTA	DEJERREG.		BET.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK			ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA			
			BZT.	EZORD. JARD.		ATXIKIPENA	ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO EZAGUPENAK		D.O	BERARIAZKO OSAGARRIA	
														ERA.
1571.001	IBILGAILU ZERBITZUKO MANTENTZEKO OFIZIALA	EB B			L	AFA	C 1 C 2	213	416	1	201	14	14.419,80	VITORIA-GASTEIZ
								222	428					
1571.002	IBILGAILU ZERBITZUKO MANTENTZEKO OFIZIALA	EB B			L	AFA	C 1 C 2	213	416	1	201	14	14.419,80	VITORIA-GASTEIZ
								222	428					
1571.003	IBILGAILU ZERBITZUKO MANTENTZEKO OFIZIALA	EB B			L	AFA	C 1 C 2	213	416	1	201	14	14.419,80	VITORIA-GASTEIZ
								222	428					
1571.004	IBILGAILU ZERBITZUKO MANTENTZEKO OFIZIALA	EB B			L	AFA	C 1 C 2	213	416	1	201	14	14.419,80	VITORIA-GASTEIZ
								222	428					
1571.005	IBILGAILU ZERBITZUKO MANTENTZEKO OFIZIALA	EB B			L	AFA	C 1 C 2	213	416	1	201	14	14.419,80	VITORIA-GASTEIZ
								222	428					
<b>30.3.05 Zerbitzua MANTENTZEA</b>														
1221.001	MANTENTZEKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB B			L	AFA	A 2	212	316	3	200	22	29.847,45	VITORIA-GASTEIZ
1513.001	KOMUNIKAZIOETAKO MANTENTZEKO OFIZIALA	EB B			L	AFA	C 1 C 2	222	460	2		16	18.935,85	VITORIA-GASTEIZ
										01/01/1997				
1572.004	MANTENTZEKO OFIZIALA	EB B			L	AFA	C 1 C 2	213	413	1	200	15	18.547,80	VITORIA-GASTEIZ
								222	416					
1572.008	MANTENTZEKO OFIZIALA	EB B			L	AFA	C 1 C 2	213	413	1	200	15	18.547,80	VITORIA-GASTEIZ
								222	416					

Literalen taula, ALHAOn (48 zh) argitaratutakoa, 2018ko apirilaren 27an

PAG. 9

**II. ERANSKINA**  
**LANPOSTUEN ZERRENDA**  
**LEKUALDATZE LEHIAKETA**

  
Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava


KODEA	IZENA	MOTA	DEJERREG.		BET.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA	
			BZT.	EZOZD.		ESKALA	IKASKETA	BERARIAZKO	D.O		
			JARD.	JARD.	ERA.	ADIM.	TALDEA	HIZKUNTZA	OSAGARRIA		
								ESKAKIZUNA	MAILA		
1572.009	MANTENTZEKO OFIZIALA	EB B	3		L	AF A	C 1 C 2	413 416	15	18.547,80	VITORIA-GASTEIZ
1572.010	MANTENTZEKO OFIZIALA	EB B	3		L	AF A	C 1 C 2	413 416	15	18.547,80	VITORIA-GASTEIZ
<b>30.3.06 Zerbitzua MOLDIZTEGIA</b>											
1307.002	AURREINPRIMAKETAKO DISEINU TEKNIKARIA	EB B			L	AF A	C 1 C 2	418	2	18.506,35	VITORIA-GASTEIZ
1307.003	AURREINPRIMAKETAKO DISEINU TEKNIKARIA	EB B			L	AF A	C 1 C 2	418	2	18.506,35	VITORIA-GASTEIZ
1413.005	ZERBITZU OKORRETAKO ADMINISTRARI/LAGUNTZAILEA	EB B			L	AF A	C 1 C 2	12	2	14.957,25	VITORIA-GASTEIZ
1413.006	ZERBITZU OKORRETAKO ADMINISTRARI/LAGUNTZAILEA	EB B			L	AF A	C 1 C 2	13	01/01/1994	14.957,25	VITORIA-GASTEIZ
1563.005	INPRIMAKETAKO OFIZIALA	EB B			L	AF A	C 1 C 2	418	1	18.906,25	VITORIA-GASTEIZ
1564.002	AURREINPRIMAKETAKO OFIZIALA	EB B			L	AF A	C 1 C 2	418	1	16.372,65	VITORIA-GASTEIZ
1564.003	AURREINPRIMAKETAKO OFIZIALA	EB B			L	AF A	C 1 C 2	418	1	16.372,65	VITORIA-GASTEIZ
1567.001	MOLDIZTEGIKO PEOIA	EB B			L	AF A	C 2	1	1	14.506,50	VITORIA-GASTEIZ
1568.001	INPRIMAKETA ONDOKO MAKINETAKO OFIZIALA	EB B			L	AF A	C 2	200	1	15.717,30	VITORIA-GASTEIZ
1568.002	INPRIMAKETA ONDOKO MAKINETAKO OFIZIALA	EB B			L	AF A	C 2	200	1	15.717,30	VITORIA-GASTEIZ

Literalen taula, ALHAOn (48-zh) argitaratutakoa, 2018ko apirilaren 27an

PAG.- 10



**II. ERANSKINA**  
**LANPOSTUEN ZERRENDA**  
**LEKUALDATZE LEHIAKETA**



KODEA	IZENA	MOTA	DED. ERREG.		BET.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA	
			BZT.	JARD.		ESKALA	IKASKETA	BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O		BERARIAZKO OSAGARRIA
			MAJ.	JARD.	ERA.	ATXIKIPENA	TITULUA	ESKAKIZUNA	MAILA		
						ADM.	TALDEA	ESKAKIZUNA	MAILA		
<b>30.3.08 Zerbitzua ZERBITZU OROKORRETAKO IDAZKARITZA TEKNIKOKO</b>											
1369.001	ZERBITZU OROKORRETAKO IDAZKARITZA TEKNIKOKO TEKNIKARI LEGELARIA	EB B			L	AFA	A 1	240	25	28.694,40	VITORIA-GASTEIZ
								01/01/2018			
<b>30.3.09 Zerbitzua LANGILE LAGUNTZAILEAK</b>											
1500.001	ZERBITZU OROKORRETAKO MANDATARIA	EB B			L	AFA	C 2 A P	2	13	14.823,45	VITORIA-GASTEIZ
1500.003	ZERBITZU OROKORRETAKO MANDATARIA	EB B			L	AFA	C 2 A P	2	13	14.823,45	VITORIA-GASTEIZ
1500.007	ZERBITZU OROKORRETAKO MANDATARIA	EB B			L	AFA	C 2 A P	2	13	14.823,45	VITORIA-GASTEIZ
1500.008	ZERBITZU OROKORRETAKO MANDATARIA	EB B			L	AFA	C 2 A P	2	13	14.823,45	VITORIA-GASTEIZ
1514.001	HARRERAGILE TELEFONOZAINA	EB B			L	AFA	C 2 A P	2	14	16.254,30	VITORIA-GASTEIZ
1551.001	KORPORAZIOKO AUTO-GIDARIA	EB B	6		L	AFA	C 2	1	15	23.361,90	VITORIA-GASTEIZ
1551.004	KORPORAZIOKO AUTO-GIDARIA	EB B	6		L	AFA	C 2	1	15	23.361,90	VITORIA-GASTEIZ
1551.005	KORPORAZIOKO AUTO-GIDARIA	EB B	6		L	AFA	C 2	1	15	23.361,90	VITORIA-GASTEIZ
1551.012	KORPORAZIOKO AUTO-GIDARIA	EB B	6		L	AFA	C 2	2	15	23.361,90	VITORIA-GASTEIZ
1553.001	AUTO-GIDARI TALDEAREN ARDURADUNA	EB B	6		L	AFA	C 1 C 2	1	16	23.673,45	VITORIA-GASTEIZ
<b>30.3.10 Zerbitzua ARKITEKTURA</b>											
1249.001	ARKITEKTURAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB B		3	L	AFA	A 2	321	22	30.294,45	VITORIA-GASTEIZ

Literalen taula, ALHAOn (48 zt) argitaratutakoa, 2018ko apirilaren 27an

PAG.- 11

KODEA	IZENA	MOTA	DELERREG.		BET.	LANTZUEN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA					
			BZT.	EZORD.		ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTA	BERARIAZKO		D.O				
												JARD.	JARD.	ESKARIZUNA	EZAGUPENAK
ADIM.	TALDEA	AZPIESKALA	TITULUA	ESKARIZUNA	EZAGUPENAK	MAILA									
1273.002	ARKITEKTOA	EB B			L	AFA	A 1	211	260	3	200	26	33.398,75	VITORIA-GASTEIZ	
1317.001	ARKITEKTURAKO DELINEATZAILA	EB B			L	AFA	C 1	213	419	2		18	19.398,20	VITORIA-GASTEIZ	
1317.003	ARKITEKTURAKO DELINEATZAILA	EB B			L	AFA	C 1	213	419	2		18	19.398,20	VITORIA-GASTEIZ	
1317.006	ARKITEKTURAKO DELINEATZAILA	EB B			L	AFA	C 1	213	419	2	01/12/1984	18	19.398,20	VITORIA-GASTEIZ	
1363.001	MAINTENTZE ETA KUDEAKETA KO OFIZIALA	EB B			L	AFA	C 1 C 2	222		2		15	17.584,55	VITORIA-GASTEIZ	
2046.003	ARKITEKTURAKO ADMINISTRARIA	EB B			L	AFA	C 1	12		2		17	17.586,20	VITORIA-GASTEIZ	
<b>30.5 Zuzendaritza ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENA</b>															
<b>30.5.02 Zerbitzua ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENA</b>															
4. Aldatu gabeko laginak ateratzea, dela mekanikoki, dela eskuz, eta beroriek gordetzea.
5. Barneratze estandarreko saiakuntzak egitea.
6. Hormigoizko eta aglomeratuzko laginak erauzteak.
7. Errepideetan lanak egiteko beharrezko seinaleak aukeratzea, seinale horiek obran jartzea zuzenduz eta antolatuz.
8. Errepideen zimurtasuna, iragazkortasuna, irristadura, atzerailsapena, kolorimetria eta abar neurtzea.
9. Lurzoruen mekanikako entseguak egitean parte hartzea, baita laborategiko entseguetan ere.
10. Penetrometro dinamikoa maneiatzea, barneratze dinamikoak egiteko.
11. Materialak eta ekipoak onik zaintzeaz arduratzea.
12. Segurtasun eta higiene neurriak ezartzea eta betearaztea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### UR ZERBITZUKO DELINEATZAILEA

1. Egingo den proiekturako datuak *in situ* hartzea.
2. Proiekturako beharrezko dokumentu grafikoak proiektatu eta marraztea.
3. Egingo diren obra unitate guztiak analitikoki definitzea.
4. Obren jarraipen lanetan parte hartzea.
5. Egikarituko diren obren zuinketa eta kokapen lanak egitea.
6. Obra kontrolatzaileei laguntza teknikoa ematea eta haiekin batera krokisak, planoak, proiektuaren xehetasunak eta abar ikuskatzea.
7. Sailekoak ez diren bulegoek eta profesionalek egindako planoak eta proiektuak berrikustea eta kontrolatzea.
8. Zerbitzuak egindako proiektuak, planoak eta azterlanak artxibatzea.
9. Zerbitzuaren lur orotako ibilgailua egoera onean mantentzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*





## ARKITEKTURAKO DELINEATZAILEA

1. Arkitektura Zerbitzuak idatzitako proiektuen urbanizazio, egitura, banatze eta fabrika obra, instalazio, arotz lan, altzari eta segurtasun eta higiene planoak egitea.
2. Zaharberritze edota birgaitze proiektuak egingo diren eraikinen zehaztapen planimetrikoa egitea.
3. Probintzia jabetzako eraikinen gaur egungo egoerari, bulegoetako lanpostuen banaketari eta horietan dauden altzariei buruzko inbentario grafikoa egitea eta eguneratuta mantentzea.
4. Liburutegi informatikoak sortu eta eguneratuta mantentzea.
5. Zerbitzuaren proiektuen zati grafikoaren agiritegia antolatzea eta mantentzea.
6. Zerbitzuaren obrei eta proiektuei buruzko informazio grafikoa eta argazkiak dakartzaten panelak egitea.
7. Zerbitzuaren proiektuei eta obrei buruzko informazio grafikoa prestatzea.
8. Besteak beste, honako zeregin hauek egitea: grafiak, organigramak, errotulazioak eta seinaleztapenak sortzea.
9. Marratzea eta planoak kopiatzea, eta proiektuen aleak koadernatzea behin amaituta.
10. Marrazketa materiala zein kopiak egiteko materiala erosteko proposamenak egitea, eta trazaketa eta kopiaketa makinak mantentzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

60



### ERREPIDEETAKO DELINEATZAILEA

1. Informazio grafiko eta kartografiko guztia prestatzea.
2. Errepideen trazaduraren aldaketak aztertzea, zehaztea eta haztatzea.
3. Obra proiektuek okupatutako lurzoruetan izango dituzten eraginen kokapena planoetan islatzea.
4. Errepide proiektuetarako beharrezko dokumentu grafikoak sortzea edota proiektatzea eta marraztea.
5. Proiektatutako obren zatiak, arro hidraulikoen azalerak eta proiektuen eragina jasango duten azalerak analitikoki definitzea.
6. Sailekoak ez diren estudioek eta profesionalek egindako planoak berrikustea eta kontrolatzea.
7. Errepide obretako zuzendaritza, ikuskapen eta kontrol zereginetan laguntzea.
8. Unitateak sorturiko planoak eta proiektuak artxibatzea, eta bi dokumentu horien kopiak ematea kontratistei, Sailari eta abarrei.
9. Proiektu berriei, eraginei, alderdi teknikoei eta abarrei buruzko informazioa eskatzen duten erakunde nahiz partikularrei arreta egitea eta informazioa ematea.
10. Sailak eta Toki Administrazioek izenpetutako hitzarmenen planoak egitea.
11. Sailaren kartografia eguneratzea.
12. Herriguneen arteko distantziak kalkulatzeko partikularrek, erakundeek eta abar eskatutakoan.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### HIRIGINTZAKO DELINEATZAILEA

1. AFaren ekimenez garatutako lurralde eta hiri plangintzaren zehaztapenak grafikoki egitea.
2. Udal plangintzari eta aurretiko azterlan sozial eta urbanistikoei dagozkien zehaztapenak informatizatzea.
3. Informazio geografikoko sistemen (GIS) gaineko prozedura erdi-konplexuak egitea.
4. Kartografiaren kalitate kontrola egitea.
5. Informatzea, pertsonalki eta telefonoz.
6. Laguntza teknikoa ematea Udalei, esate baterako, udal mugaketa, finken neurketa eta antzerakoei dagokienez.
7. Baldintza Teknikoen Agiriak egiten parte hartzea.
8. Kontratututako enpresek aurkeztutako asteroko lan planak kontrolatzea.
9. Artxibo kartografikoa kudeatzea.
10. Kartografiaren salmentari arreta ematea (planoak, disketeak, aireko argazkiak, mapak, aipamenak, NAP eta abar).
11. Mapa eskematikoak, portadak eta abar egitea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoen hala agintzen badute.*



### HARRERAGILE TELEFONOZAINA

1. Bidalketen sarrera kontrolatu eta erregistratzea.
2. Jendea informatzea.
3. Trafiko telefonikoa aztertzea.
4. Deiak hartzeko irizpideak ezartzea.
5. Zentralaren prestazio guztiak kudeatzea.
6. Telefono zentralako programazioaren bidez eskuratutako datuak informatikoki tratatzea.
7. Zenbakitze gidak sortu eta eguneratzea.
8. Lotunen sarbide maila eta horien programazioa planifikatu eta proposatzea.
9. Ezarritako programazioetarako parametroak prestatzea.
10. Ahots mezuen (ahots postontzia) jarraipena egitea.
11. Honako hauekin lankidetzan aritzea: Arabako Kalkulu Gunearekin, Mantentze Zerbitzuarekin, AFAko hainbat sailekin, telefono operadorekin eta zentralaren fabrikatzailearekin.
12. Telefono zerbitzuaren enpresa adjudikazioduneko langileak koordinatzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### **BIDE JAGOLEA**

1. Bideen jagoletza planifikatzea, planoak kontsultatuz eta telefonoz egiten zaizkion eskaeren arabera hainbat ibilbide prestatuta.
2. Bideen sarea zaintzea.
3. Arduradunei antzemandako gorabeheren berri ematea.
4. Arau hausteak salatzea, dagokien epean ez badira zuzendu.
5. Joan-etorrietan erabilitako ibilgailua egoera onean edukitzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### **INGURUMEN ETA BIODIBERTSITATEKO JAGOLEA**

1. Ingurumena zaintzeko lanak gauzatzea.
2. Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak AFAtik kanpo egindako kontratuen bidez abiatutako obren egikaritzea kontrolatzea.
3. AFAtik kanpo kontratatutako mantentze zerbitzuak kontrolatzea.
4. Andeatutako guneak eta isuriak kontrolatzen ez dituztenak lokalizatzea.
5. Zaborategiak ixtea.

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### ERREPIDEETAKO KONTROLATZAILEA

1. Hurrengo hauek zaintzea eta kontrolatzea errepideetan egiten diren lanetan:
  - Lurra mugitzeko lanak.
  - Drainatze lanak, fabrika obrak, hormak, zubiak eta egiturak.
  - Errepideen zoruetako lanak.
  - Seinale horizontal zein bertikalen lanak, bai eta baliza lanak ere.
2. Honelako lanetan teknikariek in situ lan egitea:
  - Datuak obretan "in situ" hartzea.
  - Obren zuinketa egiaztatzea, besteak beste zerbitzu hauek egiaztatuta: saneamendu sareak, hornikuntza, linea elektrikoak, telefonikoak, telegrafo lineak, etab.
  - Jada burututako obra unitateen gainean beharrezko neurketak egitea.
3. Laborategi Orokorrari obrak egiteko erabilitako materialen laginak batzeko eskatzea eta topografo taldeari egindako obra unitateen gaineko datuak batzeko eskatzea.
4. Kontrolatutako gunean gertatzen diren alterazio, apurketa, obra, arau hauste eta abarren berri ematea.
5. Obraren eraginpean dauden partikularren edo horien erabiltzaileen kexa eta kontsultei arreta ematea.
6. Neguko Bidezaintza Planean parte hartzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### BIDEAK ZAINDU ETA MANTENTZEKO KONTROLATZAILEA

1. Hauek kontrolatzea:
  - Probintziako errepideen egoera.
  - Polizia baimena behar duten jarduerak.
  - Errepide txikietan (auzo bideak, herri bideak eta abar) dabilen trafiko astuna.
2. Errepideetako obrak egiten diren eta nola egiten diren zaintzea eta kontrolatzea.
3. Teknikariei laguntzea datuak biltzeko lanetan eta datu baseak mantentzeko lanetan. Eta, orokorrean, hainbat zereginetan teknikariei laguntzea, esaterako: euren eskumen esparruko analisi espezifikoak, berrikusketak, azterketak, etab.
4. Errepideak kontrolatzeko zentroaren jardueran sortutako informazioa eta datuak kontrolatu eta kudeatzea.
5. Bertaratu eta laguntza ematea trafiko istripuren bat egonez gero, luizien kasuan, etab.
6. Neguko Bidezaintza Planean parte hartzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*





### OBRA HIDRAULIKOETAKO KONTROLATZAILEA

1. Egunero lanen garapena kontrolatu eta egiaztatzea, eta baita haiek burutzean erabilitako material eta baliabideak ere.
2. Noizean behin burututako lanak zaintzea eta baita Ur-hornidura Sistemen ustiapena ere. Vigilar, periódicamente las obras ya ejecutadas y la explotación de los Sistemas de Abastecimientos de Aguas.
3. Burutu behar diren lanen neurketa eta zuinketan laguntzea.
4. Egunero, aztertzen eta ustiatzen ari diren putzuen kontrol piezometrikoak egitea.
5. Ibai, iturburu eta presen emariak neurtzea eta uren laginak hartzea.
6. Neguko Bidezaintza kanpainetan parte hartzea eskatzen diotenean.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### KORPORAZIOKO AUTO GIDARIA

1. Ibilgailuak gidatzea korporazioko kideen joan-etorrietan.
2. Lekualdatuko den pertsonaren eskura egotea.
3. Ibilgailuak garbi eta egoera onean izatea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### LABORATEGIKO LANGILEA

1. Hainbat neurketa egitea: tenperatura, indarra, presioa, desplazamenduak, kolorea, PHa, distira, eroankortasuna, uhertasuna.
2. Soluzio baloratuak prestatzea.
3. Konpaktazioak egitea.
4. Agregakinen eta lurzoruen laginak prestatzea eta arrailtzea, entseguak egiteko.
5. Zoruan zuloak egitea.
6. Denboran egonkortutako asentamenduen neurketak egitea.
7. Hormigoizko eta aglomeratu asfaltikozko probetak ekoiztea.
8. Bere ardurapeko materialen eta ekipamenduen mantentze lanetan laguntzea.
9. Ibilgailuak gidatzea, entseguen kontrol gunetara joaterakoan.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoen hala agintzen badute.*



### LABORATEGIKO LANGILE ZUNDARIA

1. Zundaketak egitea.
2. Iragazkortasunak *in situ* egitea.
3. Aldatu gabeko laginak ateratzea, kolpez edo iltzatuz, edo hormigoiei eta aglomeratuzko laginak.
4. Lurzoruaren erresistentzia zehaztea.
5. Errepideetako bide marretan saiakuntzak egitea.
6. Neguko Bidezaintza Kanpainetan parte hartzea.
7. Penetrometro dinamikoa maneiatzeko.
8. Hormigoizko probetak, kubikoak, prismatikoak, gunitatuak eta abar fabrikatzea.
9. Tamainak bereiztea baheketa bidez, lurzoruen granulometrietan.
10. Lurzoruaren dentsitatea eta trinkotze maila *in situ* kalkulatzeko.
11. Hormigoizko probetak aurpegitzea.
12. Laborategiko tresnak eta aparatuak garbitzea eta egoera onean edukitzea.
13. Lurzoruak saiakuntzak egiteko prestatzea.
14. Eraikuntza tresnak eta lanabesak maneiatzeko.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriarik dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



## LEGELARIA

1. AFA, sozietate publikoak, foru erakunde autonomoak eta toki erakundeak ordezkatzeko, edozein organo jurisdikzionalen aurrean beren jarrerak defendatzeko, honako jarduera hauek eginez:
  - Auzitegien aurrera agertzea, demandatzaile gisa.
  - Auzitegien aurrera agertzea, demandatu edo laguntzailekide gisa.
  - Frogaldietan esku hartzea.
  - Ondorioen prozesu faseetan edo ahozko ikustaldietan esku hartzea.
  - Ebazpen proposamenak aholkatzea eta idaztea.
  - Beharrezkoak diren errekurtsoak egitea Auzitegien erabaki, auto eta epaien kontra, eta, hala badagokio, horien aurka egitea.
2. Zuzenbidearen gaineko aholkuak ematea, ahoz edo txosten juridikoak eginda, bere eskumeneko gaiei buruz edo Foru Administrazioaren eskumeneko den beste edozein gai buruz (Lege Aholkularitza Zerbitzua).
3. Xedapen orokorrak egitea eta proposatzea.
4. Administrazioeko ebazpenen gaineko proposamenak egitea.
5. Hitzarmenak, kontratuak, estatutuak eta antzekoak egitea.
6. Agiri juridikoak aztertu, batu eta antolatzea; horretarako, legezko araudian, jurisprudentzian eta doktrinan sortutako berrikuntzak aztertuko ditu.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### MAISU/MAISTRA MEKANIKOA

1. AFaren ibilgailuak eta makinak konpontzea eta egoera onean edukitzea.
2. Pieza, egitura, zirkuitu hidrauliko eta galdaragintzako tresnen krokisak, planoak eta plantillak egitea.
3. Ibilgailuak prestatzea eta berrikustea, ibilgailuen azterketa teknikorako.
4. Ibilgailu eta makinekin entseguak, egiaztapenak eta probak egitea.
5. Neguko sasoiari makineria ekipamendu guztiak kontrolatzea eta lanerako prest edukitzea.
6. Ekipamenduak eta erremintak garbitzea eta egoera onean edukitzea.
7. Ibilgailuak eta makinak nola erabili eta zaindu behar diren esatea erabiltzaileei.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### INPRIMAKETAKO OFIZIALA

1. Foru sailtako zerbitzuek eskatzen dituzten agiri originalen kalitatezko aleak inprimatzea: inprimaki kolorebakarrak, kartelak, liburuxkak, aldizkariak, txartelak, gutun azalak...
2. Inprimatzeko makinen mantentze lanak egitea: makinen osagaiak muntatzea eta desmuntatzea, eta mantentze-lan mekanikoak egitea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



## MANTENTZEKO OFIZIALA

1. Elementu akastunak konpondu eta birjartzea, eta honako hauen osagaiak egiaztatzea: behe tentsioko instalazio elektrikoak, argiztapenekoak eta indarrekoak, ekipamenduko ondasun elektrikoak, bero metagailuak edo erradiadoreak.
2. Mantentzeaz arduratzen den enpresari laguntzea, goi tentsioko elektrizitateko gaiei dagokienez, transformadoreak babesteko sareen doikuntzarako eta taradunetarako. Hozgarriaren maila eta tenperatura begiz ikuskatzea.
3. Automatismoak egoera onean zaintzea, gorabeherak antzematea eta osagai elektronikoetan eta ikus-entzunezko tresnetan doikuntzak egitea:
4. Telefono sareak eta alarmak lantzeko zentralak instalatzea, egiaztatzea eta mantentzea, bai eta handitzea ere:
5. Energia elektrikoaren eta beste erregai batzuen kontsumoa erregistratzea eta kontrolatzea.
6. Ordenagailuz zentralizatu eta zuzendutako instalazioak mantentzea.
7. Informatika sareak eta banaketarako armairuak mantentzea:
  - Informatika hartune berriak instalatzea eta informatika sarea aldatzea eta handitzea.
  - Informatikoki landuko diren datuak emateko modulu digitalak kontrolatzea.
8. Osagai mekanikoak, azelerazio ponpak, zuktzeko ponpak, suteen aurkako taldeen diesel motorrak, soldadura eta abar mantentzea eta zaintzea.
9. Iturgintza, saneamendu, berokuntza, aire girotze eta aspirazio ziklonikoko instalazioak konpondu, doitu eta zaintzea, eta bestelako lanak egitea: pintura, garbiketa, sarrailak, altzariak, pertsianak, arotzeria, etab.
10. Lanen emaitzen, mantentze planen jarraipenaren eta laneko segurtasunaren berri ematea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

75





### KOMUNIKAZIOETAKO MANTENTZEKO OFIZIALA

1. Lan karga eta trafikoa aztertzea, jasotzen eta egiten diren deiei erregistroen bidez erreparatuz.
2. Deiak hartzeko irizpideak ezartzea.
3. Zentralaren prestazioak kudeatzea.
4. Zentralaren programazioaren datuen bitartez luzapenen, okupazio denboren eta zenbatutako urratsen arteko loturak ezartzea.
5. Barruko telefono gida sortzea eta eguneratzea.
6. Ahotsaren eta faxaren lotuneetarako sarbide maila eta horien programazioa planifikatu eta proposatzea.
7. Ezarritako programazioak parametrizatzea.
8. Ahots mezuen (ahots postontzia) jarraipena egitea.
9. Kalkulu Zentroarekin batera lan egitea, telefono zentrallean eragina izan dezaketen arazo informatikoak konpontzeko; baita Mantentze Zerbitzuarekin ere, zentralaren instalazioan eragina daukaten arazo teknikoak konpontzeko.
10. Telefono operadoreekin elkarlanean aritzea, kontratatutako lineei dagokienez; baita zentralaren fabrikatzailearekin ere, aholkularitza teknikoak jasotzeko.
11. Azpikontratutako enpresako langileak koordinatzea, telefono operadoreen egitekoak gauzatu ditzaten.
12. Operadoreek une zehaztutan ematen duten informazioa zehaztea eta antolatzea.
13. Aldian-aldian, kudeaketaren emaitzei buruz informatzea nagusiei.
14. Noizik behi, telefonista lanak egitea, gertatu daitezkeen lan gainkargei irtenbidea emateko.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnrik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

76



### **IBILGAILU ZERBITZUKO MANTENTZEKO OFIZIALA**

1. Zerbitzuen Parkea mantentzeko lanak egitea, arlo hauetan: elektrizitatea, iturgintza, berokuntza, igeltserotza, lorezaintza, arotzeria, pintura edo soldadura.
2. Parkea, pabilioiak, bideak, paperontziak, garbitokiak eta abar garbitzeko eta antolatzeko lanak egitea, bai eta biltegien antolaketa eta mantentzea ere.
3. Ibilgailuak ondo aparkatzea.
4. Ibilgailuak gidatzea eta materialak garraiatzea; horretarako, Aldundiko Zerbitzuek eskatutako materiala lekualdatuko du, eta parkean biltegia duten zerbitzuetako materiala kargatu eta deskargatuko du, probintziaren barruan nahiz kanpoan, furgoneta eta kamioekin. Ibilgailuak karrozeriara, Ibilgailuen Azterketa Teknikoko kontrolalara eta abarrera eramatea.
5. Atezaintzan ordezkapenak egitea; horretarako, sarrera (bisitentzako da) kontrolatzeaz, gasolioa hornitzeaz eta hornitutako ibilgailu eta erregaiak kontrolatzeaz arduratuko da.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoen hala agintzen badute.*



### **MANTENTZE ETA KUDEAKETAKO OFIZIALA**

1. Aldizkako ikuskapenak egitea, eraikin bakoitzeko elementuak berrikusita.
2. Mantentze lanak egitea (igeltserotza, elektrizitatea, egurrezko arotzeria...) eta aldizkako ikuskapenetan ikusitako akatsak zuzentzea, konponketa txikiak eginda.
3. Lanen emaitzen, mantentze planen jarraipenaren eta laneko segurtasunaren berri ematea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### **INPRIMAKETA ONDOKO MAKINETAKO OFIZIALA**

1. Errustikoan eta kartonean koadernatzea.
2. Inprimaketan erabili beharreko papera prestatu eta moztea, bai eta amaitutako ale inprimatuak ere.
3. Makinak prestatzea, egin beharreko lanen arabera: tolesgailua, jasogailua, josteko makina (hariz edo grapaz).

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### **AURREINPRIMAKETAKO OFIZIALA**

1. Inprimakiak osatzen dituzten testuak eta irudiak sartzea.
2. PC formatuko fitxategiak Macintosh formatura bihurtzea.
3. Lan bakoitzaren probak eta zuzenketak egitea.
4. Elektronikoki muntatzea.
5. Filmatzea eta plantxak egiaztatzea.
6. Probak, kopuru txikiko inprimaketa digitalak, eta laser probak ateratzea.
7. Lanen segurtasun kopiak egitea.
8. Informazio digitala artxibatzea.
9. Makina prozesadoreen mantentze eta garbiketa lanak egitea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### AGIRITEGI ETA LIBURUTEGIETAKO MANDATARIA

1. Aretoak artatzea, ordena mantenduz eta erabiltzaileei kontsultarako ematen zaien material guztia zainduz.
2. Eraikina, altzariak eta instalazioak zaindu eta babestea.
3. Erabiltzaileek eskatzen duten dokumentazioa gordailuetatik ikergelara eramatea, eta gero berriz ipintzea kontsultatzen amaitzen dutenean.
4. Agirietan hondatzen diren euskarriak aldatzea.
5. Erreproduktzio makinak erabiltzea.
6. Agiriak, liburuak eta altzariak masiboki lekualdatzea, kasuan kasu dagokien lekuan jarrita.
7. Telefono zerbitzu zentralizatuaz arduratzea.
8. Erabiltzaileei informazio orokorra ematea (telefonoz zein zuzenean).
9. Aldundiko zerbitzuek eskatzen duten dokumentazioa ematea eta jasotzea.
10. Premiazko posta paketeak eraman eta ekartzea, eta eguneko posta sailkatu eta zerbitzuko langileei banatzea.
11. Bisitarien eta erabiltzaileen sarrera kontrolatzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### MUSEOETAKO MANDATARIA

1. Eraikina zabaltzea eta ixtea.
2. Eraikinaren barrualdea eta kanpoaldea zaintzea.
3. Oro har jendeari harrera egin, arreta eman, zaindu eta kontrolatzea.
4. Bideo eta audio zintak erreproduzitzeko ekipamenduak manipulatzeko, bai eta airea girotzeko sistemak ere.
5. Erakusketak muntatzeko materialak eta funtsak manipulatzeko, apalategiak eta panelak lekualdatzea, eta abar.
6. Mantentze lanak egitea.
7. Telefono guneari arreta ematea, eta faxa eta fotokopiagailua erabiltzea.
8. Museoak dituen argitalpenak eta antzeko objektuak erakustea, saltzea eta kontrolatzea.
9. Gorabeheren eta bisiten parteak egitea, egunero.
10. Barruko eta kanpoko posta jasotzea, sailkatzea eta banatzea.
11. Eraikinaren eta inguruaren garbiketa lanak egitea, bai eta lorezaintza lanak ere (museo periferikoetan soilik).

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### ZERBITZU OROKORRETAKO MANDATARIA

1. Barruko eta kanpoko posta jasotzea, sailkatzea eta banatzea.
2. Barruko postaren eta posta frankeoaren zakuak prestatzea eta sailkatzea enpresa esleipendunentzat.
3. Materiala bidaltzea eta jasotzea.
4. Material birziklagarria biltzea eta horien gaineko lanak in situ ziurtatzea.
5. Bideoa eta audioa erreproduzitzeko ekipamenduak gainbegiratu eta egiaztatzea, bai eta instalazioak ere (komunak eta botikinak).
6. Herritarrei informazioa ematea, eta orientatzea, zein zerbitzutara jo, non kokatuta dauden, ordutegiak zein diren eta abarrei buruz.
7. Protokolo ekitaldietara, batzarretara, ikastaroetara eta abarrera joatea.
8. Arabako Foru Aldundiko unitateekin elkarlanean aritzea, unean-unean.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*





### MOLDIZTEGIKO PEOIA

1. Arabako Aldizkari Ofiziala maneatzea.
2. Inprimaketako papera jartzea.
3. Inprimaketa lanetan laguntzea.
4. Banaketa lanak: materiala eta inprimatutako lanak diforu sailalara garraiatzea, eskatutako materialak eta inprimaketak entregatzeko; eta lehengaiak banatzea.
5. Materiala jasotzea eta biltegia ordenatzea.
6. Inprimaketa makinetako aluminiozko plantxak garbitzea.
7. Paperontziak hustu eta garbitzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### NEKAZARITZAKO TEKNIKARI LAGUNTAILEA

1. Bateratuko den lursailaren aireko argazkiak berriz tindatzea, tokian bertan eta bulegoan.
2. Jabetzen eta Lurzatien Bateratzeak eragingo dien jabeen gaineko datuak batzea.
3. Lurzatien Bateratzeari buruzko oinarriak egiteko lanetan parte hartzea, behin-behinekoak eta behin betikoak: behin-behineko oinarriak behin betiko onartzea.
4. Behin betiko oinarrien errekurtsioak izapidetzea.
5. Errepideen eta saneamenduen eta lurzatien bateratzeen proiektuak egitea.
6. Lurzatien Bateratzeari buruzko Akordioa egin eta izapidetzea, bai eta egon daitezkeen bestelako baliabide batzuk ere.
7. Mugarriak jartzea.
8. Herritarrei informazioa ematea eta kontsultak argitzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### FORU PLANEKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA

1. Arabako herriguneetako azpiegituren eta ekipamenduen inbentarioa mantendu eta eguneratzea.
2. CAD eta ArcGis aplikazioetan sor daitezkeen gaiak aztertzen eta horiei konponbidea ematen laguntzea.
3. Planoak egiten laguntzea, obra unitateak kalkulatzeko.
4. Dokumentazio teknikoa egitea behar duten toki erakundeentzat, hala nola, obra baten memoriaren zati bat, edo obra egiteko betekizunak.
5. Bere eskumen esparruko espedienteak gainbegiratu eta kontrolatzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### NEKAZARITZAKO LAGUNTZA ETA ZABALKUNDE ZERBITZUKO TEKNIKARIA

1. Laguntza teknikoak ematea ustiatzei, kooperatibei, elkarteei eta toki erakundeei, nekazariari eta abeltzainei, bulegoan eta landan kontsultak ebatziz, herri larreen gaineko azterlanak eginez, hobekuntza proiektuak idatziz eta obrak zuzenduz.
2. Nekazaritzako esperimentazio lerroak ezarri eta gainbegiratzea; horretarako, arazoak antzemango ditu, batzarrak egingo ditu sektorearekin, esperimentazio proiektuen proposamenak igorriko ditu, zuzenketa neurriak aplikatu eta emaitzak aztertuko ditu.
3. Entsegu eremuetan lan egiten duen taldea (giza taldea eta talde materiala) koordinatzea.
4. Zabalkundea eta sustapena egitea, esperimentaziotik lortutako emaitzak transferituz eta informazio teknikoak emanez.
5. Gainazalak eta laboreak ikuskatu, baloratu eta ziurtatzea, oinarri kartografikoa eta ikuskatu beharreko espedienteak prestatuz. Horrez gain, laboreetan sortutako kalteak edo aldaketak ere ikuskatu, baloratu eta ziurtatzea, uztan izandako kalteak edo/eta galerak egiaztatuz.
6. Azterlan tekniko eta ekonomikoak eta txostenak egitea, produktu fitosanitarioen saiakuntza ofizialei buruz.
7. Laboreen osasun egoera zaintzea eta kanpaina fitosanitarioak egitea; horretarako, laboreen garapenean ondorio kaltegarriak sor ditzaketen agente patogenoak eta fisiopatologiak antzemango ditu.
8. Luberrien gainazalak identifikatu eta eguneratzea.
9. Nekazaritza eta ingurumen laguntzetarako eskaeren gainean txostenak egitea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

87



### EKONOMIA ETA AURREKONTU KONTROLEKO TEKNIKARIA

1. Kontabilitate agiriak indarrean dauden kontabilitate araudiarekin eta jarraibideekin bat datozela kontrolatu eta egiaztatzea.
2. Fakturen prozesu bezala katalogatutako ekintzen kontrol ekonomiko-fiskala egitea, obligazioak, aurrekontuz kanpoko eragiketak eta aurrekontu izaerako sarrerak erregistratzea.
3. Udal, errentatzaile eta jabe komunitateekiko obligazioak dituzten agiriak izapidetzea.
4. Aurrekontuen likidazioa egitea eta Kontu Orokorra egitea.
5. Aurrekontu programa nagusiak gauzatzeari buruzko azterlanak, estatistikak eta txostenak egitea, ekonomia eta kontabilitate edukidunak, etab.
6. Zerbitzuak ematen dituzten enpresen kontratuen erregistroa kontrolatzea, eguneratzea eta kudeatzea.
7. Aurrekontuen aurreproiektuak egiten parte hartzea, bai eta toki erakundeentzako aurrekontu arloko Foru Arau Proiektuetan ere, beharrezko aholkularitza emanez.
8. Kontabilitate arloko aholkularitza ematea AFaren gainerako zerbitzuei.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### **AURREINPRIMAKETAKO DISEINU TEKNIKARIA**

1. Diseinu grafikoko proiektuak egitea (liburuak, aldizkariak, liburuxkak, kartelak).
2. Eskatutako inprimakiak konposatu eta maketatzea.
3. PC formatuko fitxategiak Macintosh formatura bihurtzea.
4. Filmatzea eta plantxak egiaztatzea.
5. Ale gutxi batzuen probak, inprimaketa digitalak ateratzea, eta inprimaketa probak egitea.
6. Inprimaki bat egiteko eskatutako informazio digitala biltegitratzea eta euskarri informatiko ezberdinetan informazioa grabatzea.
7. Aurreinprimaketa zereginetan informazio teknikoa ematea horien ardura daukaten ofizialei.
8. Bere jarduera arloko lanak egiteko erabilitako sare informatikoaren mantentze eta jarraipen lanak egitea.
9. Makina prozesadoreen mantentze eta garbiketa lanak egitea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### GARDENTASUN ETA PARTE HARTZEKO TEKNIKARIA

1. Foru kudeaketa publikoaren ebaluazioari, gardentasunari eta herritarren parte hartzeari lotutako araudia, prozesuak, erakunde egitura eta baliabideak proposatu, bultzatu, berrikusi eta hobetzea.
2. Herritarren, gobernuaren, erakundearen eta sozietate publikoen arteko solasaldiak bermatzea Gobernu Irekiko atarian abiatzen diren elkarlaneko eta parte-hartze prozesuetan.
3. AFAko sailak eta foru sektore publikoko erakundeak koordinatzea, laguntzea eta aholkatzea honako hauei dagokienez: gardentasuna, sare sozialak, herritarren parte hartzea eta gobernu ona.
4. Herritarrek gardentasunaren eta parte hartzearen alorretan dituzten eskubideak direla-eta agertutako zalantzak eta egindako kontsultak argitzea.
5. Foru sektore publikoaren publizitate aktiboaren jarraipen lanetan eta hobekuntzan laguntzea, baita informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen gauzatzean ere.
6. Prestakuntzako, sentsibilizazioko, gaitasunak garatzeko eta ahalduentzako programak sustatzea gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren alorretan.
7. Gobernu Irekiko atariko eta elkarlaneko beste plataforma batzuetako edukiak ikuskatu, balioztatu eta argitaratzea.
8. Nagusiek agindutakoan, zehaztugabeko beste egiteko batzuk gauzatzea, lanpostuaren kategoriarekin bat badatoz eta aurrekontuaren eta aurreko funtzioetarako esleitutako partiden kudeaketa ekonomikoarekin zerikusia badute.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

90



### **TOKI ERAKUNDEETAKO EKONOMIAKO KONTABILITATE TEKNIKARIA**

1. Toki erakundeei laguntza tekniko ematea urteko aurrekontuak eta aurrekontua aldatzeko espedienteak egin eta onartzerakoan.
2. Toki erakundeei kontabilitatearen eta ordenantza fiskalen inguruan aholkatzea.
3. Toki erakundeen udal aurrekontuaren likidazio espedientea prestatzen laguntzea.
4. Kontu orokorra eta kontabilitate orokorreko zuzeneko idazpenen erregistroa idazteko laguntza ematea.
5. Kontratuak prestatzeko eta lizitazioaren jarraipena egiteko dokumentuak prestatzea eta beroriek betearaztea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



**TOKI ERAKUNDEETAKO EKONOMIA AZTERLANETAKO TEKNIKARIA**

1. Ekonomia, estatistika, demografia eta ekonometria azterlanak egitea, proiektuen bideragarritasun planak eta abar.
2. Arabako Herriguneetako Azpiegitura eta Ekipamenduen Inbentarioa mantentzea eta kudeatzea, bai eta aldizka berregitea ere.
3. Batasuneko proiektuetatik jasotako Europako funtsak izapidetzea eta kontrolatzea, Zuzendaritzaren eskumeneko programetan eragina daukatenean.
4. Toki erakundeen egoerari nahiz beharrei buruzko azterlanak eta ekipamenduen eta zerbitzuen diagnostikoa egitea.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko II. Plana kudeatzea Toki Administrazioaren Zuzendaritzaren eta finantzaketako foru lerroaren esparruan, eta haren kontrola egitea.
6. Honako zeregin hauetan parte hartzea: Zerbitzuaren laguntza planen kudeaketan, Zerbitzuak kudeatzen dituen programen araudien aurreproiektuen prestaketan, eta Toki Administrazioaren Zuzendaritzako zerbitzuen urteko aurrekontu orokorren elaborazioan.
7. Aiarako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Partzuergoa eraentzen duen estatutua betetzen dela zaintzea.
8. Zerbitzuaren eta Atalaren buruzagitzak informatzea, Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzari lotutako gaien inguruan.
9. Zerbitzuaren bibliografia eskuratzea eta kontrolatzea.
10. Zerbitzuberuak eta atalburuak laguntzea beharrezkoak dituzten egitekoetan.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

92

**IKUSKARITZAKO KUDEAKETA TEKNIKARIA**

1. Pertsona fisiko eta juridiko zordunen ondarea ikertzea.
2. Zergabilketa prozeduretan sorburu duten jakinarazpenak egitea.
3. Enbargoaren jarduketak egitea zergapekoaren zerga-egoitzan bertaratz edo, orokorrean, enbargatzekoak diren ondasun eta eskubideak dauden lekuetan.
4. Enbargatutako ondasunak besterentzeko espedienteen agiriak biltzea eta horien gaineko informazioa ematea.
5. Erantzukizun subsidiario eta solidarioko deklarazioen espedienteetarako agiriak biltzea eta espedienteak izapidetzea, zordun nagusia ez diren pertsonen kasuan.
6. Akatsei eta kreditu kobraezinei buruzko espedienteak aztertzea eta izapidetzea, ordaintzeko beharra duten pertsonen edo zergapekoen kaudimengabezia egiaztatu eta gero.
7. Kobraezintzat jo diren kredituen birgaitzea prestatzea eta horien gaineko informazioa ematea, horretarako baldintza egokiak suertatzen direnean.
8. Zerga zorren kobrantza ziurtatzeko kautelazko eta prebentziozko neurriak hartzen direnean, beroriek izapidetzea eta haien inguruko informazioa ematea.
9. Zerga bilketako jarduketan egintzen aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoak ebaztea.
10. Zergadunek Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen eta beste auzitegi batzuen aurrean aurkeztutako erreklamazio ekonomiko-administratiboaren edukien gaineko informazioa eskaintzea eta dagozkion alegazioak egitea.
11. Zerga administrazioaren egintzen eta likidazioen aurka aurkeztutako errekurtso administratiboak eta judizialak ebatzi bitartean zerga zorren ordainketa eteteko eskaerak izapidetzea eta horiei buruzko informazioa ematea.
12. Ondasunak enbargatzeko egintzen aurka aurkeztutako aurretiko hirugarrenotza erreklamazioak eta eskubideak ezagutzea eta horien gaineko informazioa ematea, organo eskudunak ebatz ditzan.
13. Zerga zorrak gauzatan ordaintzeko eskaeren jakitun egotea eta horiei buruzko informazioa ematea.
14. Lehiaketan deklaraturako zergapekoen egoera fiskala aztertzea, lehiaketa zorra egiaztatze aldera.
15. Administrazio ez eskudunetan egindako sarreraren ondorioz gertatzen diren zerga administrazioen arteko bidalketak kontrolatu eta kudeatzea.
16. Zerga betebeharrak nabarmen bete ez dituzten zergapekoen zerrenda osatzen eta argitaratzen laguntzea.
17. Egindako zergabilketen prozedurei buruzko informazioa jaso nahi dutenei arreta egitea: zuzenean, posta elektronikoz zein telefonoz.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### **FUNTZIO PUBLIKOKO IDAZKARITZA TEKNIKOKO KUDEAKETA TEKNIKARIA**

1. AFAko langileen prestakuntza beharrak aztertzea.
2. AFAko langileen prestakuntza programak kudeatzea.
3. Antolatzen diren prestakuntza jardueren jarraipena egitea.
4. Prestakuntza programei buruzko estatistikak eta txostenak egitea.
5. Honako alor hauetan laguntza teknikoa ematea: lankidetzaren hitzarmenen proposamenak eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzako zerbitzuen administrazio kontratuarentako baldintzen agiriak, AFAko nominaren kudeaketa, aurrekontuaren aurreproiektua, eta 1. kapituluaren kostuei eta aurrekontuaren aldaketei buruzko txostenak.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### ZUZENeko ZERGETAKO ZERGA KUDEAKETA TEKNIKARIA

1. Zailtasun berezia duten edo gaizki egon daitezkeen aitortpenak berrikustea, ziurtatzea eta aldatzea, hala badagokio.
2. Herritarrek zuzeneko zergak direla eta jarritako berraztertze errekurtsoak ebaztea.
3. Erreklamazio ekonomiko-administratiboen edukiaren gaineko informazioa ematea eta horien gainean dagozkion alegazioak egitea.
4. Zuzeneko zergen aitortpenerako inprimaki ereduak egitea.
5. Programa informatiko berriak egiteari buruzko kalkuluak eta jarraibideak egitea eta horiek Kalkulu Guneari proposatzea.
6. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) kudeatzeari buruzko ikastaro teoriko-praktikoak ematea eta horien gaineko informazioa ematea AFAK errentaren kanpainarako kontratatutako aldi baterako langileei, bai eta erakunde laguntzaileetako langileei ere.
7. Aitortpenak aurkezteko kanpainen funtzionamendua kontrolatzea.
8. Zerga espedientea berrikusterakoan zergaduna edo horren ordezkaria aurrez aurre atenditzea.
9. Zerga pizgarriak eta erregimen bereziak aplikatzeko eskatzen duten enpresek aurkeztutako dokumentazioa analizatzea eta aztertzea.
10. Likidazioak egitea, Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak egindako Ikuskatze Aktetan jasotako proposamenekin bat etorrira.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### UDAL ZERGEN ZERGA KUDEAKETA TEKNIKARIA

1. Herritarrek aurkeztutako berraztertze errekurtsoak ebatzea, eta errekurtsoetan adierazitako ondasunei buruzko katastroko datuak aldatzeko eskatzea.
2. Herritarrek Arabako Lege eta Administrazio Erakundean aurkeztutako erreklamazio ekonomiko-administratiboetan informazioa ematea.
3. Katastroko titularrei eskatzea Zerbitzuko agiritegian ez dagoen eta espedienteak administrazioan izapidetzeko beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa.
4. Euskal Kultura Ondarearen Zentroari informazioa eskatzea kultura ondasun gisa katalogatuta dauden Arabako Lurralde Historikoko ondasunen gainean, ondasunen salbuespenari edo hobariari buruzko txostenak egin ahal izateko.
5. Udalei eta administrazio batzarrei aholku teknikoak eta juridikoak ematea Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketaren inguruan, baita udalerriko landa eta hiri katastroaren mantenuaren inguruan ere.
6. Noizean behin, jendeari arreta egitea, eta eskatzen duten informazioa eta dokumentazioa ematea.
7. Katastroari eta OHZri lotutako alderdi juridikoei buruzko informazioa ematea jendeari.
8. Udalerrien katastroa mantentzeko kontratuaren enpresa adjudikaziodunari aholkularitza juridikoa eskaintzea.
9. Zerbitzuburuarekin elkarlanean aritzea, amankomuneko helburuak lortzeko.
10. Foru arauak, erabakiek, dekretuek, aginduek eta abarrek onartutako katastroaren eta tokiko tributuen inguruko dokumentazioa biltzea, sailkatzea eta artxibatzea.
11. Hiri nahiz landa ondasun higieziari buruzko ziurtagiriak egitea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez diren beteko, nagusi hierarkikoen hala agintzen badute.*

96



### LANKIDETZAKO KUDEAKETA TEKNIKARIA

1. Garapenerako lankidetzaren politiken eta giza eskubideen arloan honako hauek proposatzea:
  - Jardunbideak.
  - Obra, hornikuntza eta zerbitzuen lizitazioa.
  - Dirulaguntzen deialdiak egitea eta lankidetzaren hitzarmenak sinatzea.
  - Beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin ekintzak koordinatzea.
2. Bere eskumen arloan aholkularitza ematea.
3. Sailaren eskumenak erabiltzean eratuko diren kide anitzeko organoetan parte hartzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriarik dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### AUKERA BERDINTASUNeko TEKNIKARIA

1. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana abian jartzeko eta garatzeko egin behar diren jarduketak kudeatzea eta, hartara, tokiko beste erakunde publiko batzuekin elkarlanean aritzea.
2. AFAn Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana zabaltzeko beharrezkoak diren jarduketak proposatzea.
3. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Planak aurreikusitakoari erantzunez sailek egindako proposamenak aztertzea eta jarduketak proposatzea.
4. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Planaren harira sailek egiten dituzten jarduketaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
5. Foru esparruan, honako gai hauei buruzko informazioa eta aholkuak ematea: emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunari lotutako ekimenak eta legedia; toki, foru, autonomia eta estatu mailan berdintasuna bultzatzeko neurriak ezartzeko dauden laguntzak eta programak; eta Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana abiatzeko, garatzeko eta planaren jarraipena egiteko jarduketa guztiak.
6. Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren alorrean, Araban jarduketa zehatzak behar dituzten estatistikak, egoerak eta gaur egungo beharrak aztertzea.
7. Udalekin, toki erakundeekin eta irabazi asmorik gabeko elkarteekin elkarlanean aritzea, eta gai horren inguruko aholkularitza eskaintzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez diren beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

98



## NEKAZARITZA AZPIEGITURETAKO TEKNIKARIA

1. Nekazaritza onibarrak aztertzea eta ikertzea, katastro edo informatika planetan oinarrituta, lurzati bateratzera ekarritako finkak zeintzuk diren jakiteko.
2. Lurrak sailkatzea, jabe bakoitzak ekarritako finkak balioesteko ardura duen batzarra antolatuz eta zuzenduz.
3. Lurraren ezaugarriak aztertzea, zonan ibilita, ondoren jasotze topografikoa egiteko, obra planak gauzatzeko beharrezkoa baita.
4. Obra proiektuak egitea, eremu hauek kontuan hartuz:
  - lurzati bateratzeko obrak
  - landa azpiegituretako obrak
5. Lanen zuinketan parte hartzea, haiek egiaztatzea eta zuinketa planoak egitea.
6. Sailak kontratatu, diruz lagundu eta sustatutako obrak egiten diren ikuskatzea.
7. Finka berriak mugarritzea, mugarritze hori zuzenduz.
8. Bere jardun esparruari dagozkion gaien inguruko txostenak, proposamenak eta balioespenak egitea.
9. Bateratu beharreko zonaren datuak informatikoki prozesatzea eta bertatik bertara lortutako ikerketa datuak sartzeta eta sailkatzea.
10. Landa azpiegitura hobetzeko laguntzei buruzko informazioa eta aholkularitza teknikoa ematea toki erakundeei, mendiko nekazaritza elkarteei eta landa garapenean dihardutenei.
11. Landa azpiegiturek direla-eta egindako obren ziurtagiriak ematea.
12. Diruz lagundutako landa azpiegituren obren likidazioa proposatzea.
13. Landa azpiegituretako obretarako diru laguntzen ordainketa proposatzea, laguntza ematen duen foru aginduaren eta egindako obra ziurtagiriaren arabera.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*





### GIZARTE ZERBITZUEN IKUSKATZAILTZAKO TEKNIKARIA

1. Gizarte zerbitzuen alorrean garatutako baimen, ikuskapen, homologazio eta erregistro prozesuei lotutako arlo guztien gaineko aholkularitza juridikoa ematea.
2. Gizarte Ongizaterako Zuzendaritzari baimenen, ikuskapenen, homologazioen eta erregistroen araudietan aldaketak egitea proposatzea eta horiei buruz informatzea.
3. Araudien interpretazioak beste erakunde batzuekin elkarlanean koordinatzea.
4. Ikuskapenak egitean antzemandako arau hauste administratiboen ondorioz hasitako zehapen espedienteen ebazpen proposamena egitea eta izapidetzea.
5. Gizarte zerbitzuak eskaintzen dituzten zentroyen ikuskapenetan parte hartzea erdi-mailako teknikariarekin batera.
6. Ikuskapen aktak idaztea, horretarako ezarritako ereduak betetz. Aktak ikuskatutako zentroyaren arduradunaren aurrean beteko dira.
7. Ikuskapen txostenak idaztea, oharitutako alderdi defizitarioak hobetzeko proposamena eta epea zehaztuta.
8. Zentro eta zerbitzuetako arduraduneri, langileei eta erabiltzaileei haien eskubide eta betebeharreri buruzko informazioa ematea, bai eta eduki juridikoko informazio eskaerak erantzutea ere.
9. Gizarte zerbitzuak eskaintzen dituzten zentroak eta establezimenduak martxan egoteko baimenak erdi-mailako teknikariarekin batera izapidetzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

100



### KULTURAKO TEKNIKARI/LEGELARIA

- 1.- Zuzenbidearen alorreko aholkularitza egitea, bere eskumen esparruari edo Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruari dagozkion gaien inguruko txosten juridikoak eginik.
2. Espedienteak ebazteko proposamenak jasotzen dituzten txosten juridikoak egitea, ondasun eta kultura-ondare eskubideen espediente eta jardueri buruz.
3. Administrazioaren ebazpen proposamenak idaztea: foru aginduak, erabakiak, dekretuak eta foru arauen proiektuak.
- 4.- Erakundeek Euskara, Kultura eta Kirol Sailean aurkeztutako errekurtsuak ebaztea.
5. Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikitako fundazioei bere eskumenero gaiei buruzko aholkularitza eskaintzea.
- 6.- Xedapen orokorrak egitea eta proposatzea.
7. Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikitako fundazioetako patronatuen idazkari jardutea.
8. Hitzarmenak, kontratuak, estatutuak eta antzeko agiriak egitea.
9. Agiri juridikoak aztertu, batu eta antolatzea, legezko araudian, jurisprudenzian eta doktrinan egindako berrikuntzak aztertuta.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

101

**ONDAREKO TEKNIKARI LEGELARIA**

1. Ebazpen proposamenak jasotzen dituzten txosten juridikoak egitea, ondasun eta ondare eskubideen espediente eta jardueri buruz.
2. Ondare egoera, ondasun eta eskubideei buruzko informazioa ematea.
3. Administrazioko ebazpenen gaineko proposamenak idaztea: foru aginduak, erabakiak, dekretuak eta foru arauen proiektuak.
4. Ondasun eta eskubideei buruzko errekurtsoen aurkezpenak prestatzea, AFAk eta beste erakunde batzuek aurkeztutako errekurtsuetan.
5. Administrazio Ebazpenak gauzatzea, Katastroan eta Jabetza Erregistroan islatuta.
6. Ondareari buruzko edukia duten kontratuak prestatzea.
7. Notariotzak egindako kontuak berrikustea, kontua eta onetsi beharreko ebazpena alderatuz.
8. Buletin, kode, monografia, epai eta abarretan argitaratutako agiriak biltzea eta eguneratzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

**ZERBITZU OROKORRETAKO IDAZKARITZA TEKNIKOKO TEKNIKARI / LEGELARIA**

1. Bere jarduera esparruari dagozkion edo horretan eragina duten gaien inguruko laguntza juridikoa ematea Idazkaritza Teknikoari eta Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzako gainerako zerbitzuei.
2. Berraztertze errekurtsoak ebaztea eta Zerbitzu Orokorrarako Idazkaritza Teknikoaren alegazio txostenak egitea kontratazio errekurtso bereziei dagokienez, Zerbitzuko Buruzagitzarekin elkarlanean.
3. Zerbitzu Orokorrarako Idazkaritza Teknikoaren Buruzagitzari lan prozeduretan egin beharreko aldaketak proposatzea, gertatzen diren legedia aldaketetara egokitzeko.
4. Zerbitzu Orokorrarako Idazkaritza Teknikoaren Buruzagitzarekin elkarlanean aritzea, hainbat ondasun eta zerbitzu kontratatze baldintzen agiriak egiteko.
5. Zerbitzu Orokorrarako Idazkaritza Teknikoaren Buruzagitzarekin elkarlanean aritzea, Arabako Foru Kontratazio Zentrala kudeatzeko.
6. Zerbitzu Orokorrarako Idazkaritza Teknikoko langileak prestatzea beren eginkizunak gauzatzeko eragina daukaten lege kontuetan.
7. Antolaketa eta Informatika zerbitzuekin lankidetzan aritzea bi zerbitzuok elkarrekin jorratzen dituzten proiektuetan, horietarako ikuspegi juridikoa eskainita.
8. Zerbitzu Orokorrarako Idazkaritza Teknikoaren Buruzagitzarekin elkarlanean aritzea, xedapenak, hitzarmenak, txostenak eta abar egiteko.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

103



### UR ZERBITZUKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Obrak egikaritzean jarraitu beharreko gidalerroak ezartzea.
2. Obra egikaritu ahala, hura ikuskatzea.
3. Berehalako nagusiei aurrez jakin daitezkeen obrak, azterlanak, eta proiektuak egitea proposatzea.
4. Obra proiektuak egitea, beharrak eta baliabide eskuragarriak aztertuz.
5. Herrilan eta Garraio Sailekoak ez diren estudio eta profesionalei enkargatutako proiektuen idazketa zuzendu eta kontrolatzea.
6. Obrak egikaritzearen eragina jasango duten zerbitzu publiko eta partikularrak planoan nahiz *in situ* kontrolatzea.
7. Partikularrek aurkeztutako askotariko erreklamazioak aztertzea, obrak egikaritu bitartean zerbitzuak egindako hainbat jarduketa direla-eta.
8. Txosten teknikoak egitea eta Aldundiko sailei zein toki erakundeei aholkularitza eskaintzea, planteatzen diren arazoak konpondu eta bideratzeko.
9. Obra egikaritzeen eta etorkizuneko proiektuen idazketaren inguruan erabakitzen lagunduko duten obra aukerak eta proposamenak baloratzeko balio duten obra aurrekontuak egitea.
10. Hornitzaileei arreta egitea, produktu berrien jakinaren gainean egoteko eta horien ezaugarri teknikoak eta prezioak ezagutzeko.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

104



### AGIRITEGI ETA LIBURUTEGIETAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Agiriak egiten dituzten erakundeak aztertzea (jatorria, bilakaera, eginkizunak...), dokumentu funtsak erakunde horien egitura eta funtzionamendua islatzen dituzten modu batean antolatzeko.
2. Dokumentazioa aztertzea, euskarriari, igorpen erari, idazketari, formatuari, egileari, datari eta beste hainbat datari erreparatuta.
3. Fitxa deskribatzaileak egitea, dokumentuen azterketatik lortutako datuak jasoz.
4. Dokumentu tipologiak ezarri eta bateratzea.
5. Dokumentazioa sailkatzea.
6. Dokumentazioa ordenatzea elementu batzuk eta besteak erlazionatuz aurretik ezarritako irizpideei jarraikiz.
7. Sailkapen taulak sortzea, dokumentu sortaren antolaketa eta horren egitura hierarkizatua erakusteko.
8. Tresna deskribatzaileak prestatzea: giden kasuan, informazio orokorra emango da; inbentarioetan, berriz, dokumentu multzoak deskribatuko dira.
9. Aurkibideak prestatzea.
10. Dokumentazioa baloratzea; besteak beste, kontserbazio egoera eta edukien informazioa aztertuko dira, agiriok berriztatu, garbitu edo horien eskuragarritasuna murrizteko.
11. Dokumentazioa instalatzea.
12. Zentroaren informatizazioan laguntzea, zentroaren beharrei hoberen egokitzen zaizkien informatika programetarako iradokizunak eginez eta agiritegiaren planeamenduari buruzko datuak eta beharrezko osagaiak eskainiz.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### ARKITEKTURAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Obren egikaritze materiala ikuskatzea.
2. Obretan, segurtasun eta higiene proiektuak prestatzea.
3. Obraren enpresa adjudikaziodunak proposatutako segurtasun plana aztertzea, eta onartzen edo baztertzen den erabakitzea.
4. Obrak egin bitartean, segurtasun planak kontrolatzea.
5. "Eraikuntzaren Kalitatea Kontrolatzeko Programa" egitea.
6. "Kalitatea Kontrolatzeko Programa" betetzen den ikuskatzea.
7. Proiektuaren dokumentu grafikoaren prestatze lanetan parte hartzea.
8. Neurketen eta aurrekontuaren egoera ezartzea lanpostuaren titularrak egikaritze materialaren ikuskapena bere gain hartzen duen proiektuetan.
9. Bere eskumen esparruari dagozkion gaiei buruzko txostenak egitea.
10. Lehiaketetara aurkeztu diren gutun azal itxiak aztertzea.
11. Fakturen ordainketak onartzea edo ezestea proposatzea.
12. Arkitektura Zerbitzukoak ez diren pertsona edota erakundeekin harremanetan jartzea, helburu komunak aztertu, planifikatu eta programatzeko.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

106



### SAILKATUTAKO JARDUERA ETA HONDAKINETAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Bizitegi lurzoruetan jarduera gogaikarriak, osasungaitzak, kaltegarriak eta arriskutsuak kalifikatzeko txosten teknikoak egitea.
2. Bizitegi lurzoruetako jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko salaketak aztertzea.
3. Ingurumen Egokitasunari buruzko Ziurtagiriak emateko espedienteak izapidetzea.
4. Arabako Foru Aldundiaren Ontziak eta Ontzien Hondakinak Sailkatzeko Instalazioaren kudeaketa ikuskatzea.
5. Kutsadura akustikoa zuzendu eta kontrolatzea.
6. Gaikako bilketarako eta hondakinak birziklatzeko ekipamendu eta azpiegiturei buruzko proiektuak teknikoki garatzea eta obren egikaritzea kontrolatzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*





### **AGIRITEGIKO LIBURUTEGIKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA**

1. Liburutegiaren informatizazioa zuzentzea.
2. Eskuratze bibliografiko berriak kudeatu zein proposatzea.
3. Eskuratze berriak jaso, erregistratu eta katalogorako zenbakitzea.
4. Funts bibliografikoak katalogatzea.
5. Sailkatutako argitalpenen eta monografiaren bilduma ordenatu, handitu eta kontserbatzea.
6. Erabiltzaileak informatzea.
7. Erabiltzaileei eta liburuen erabilerari buruzko estatistikak egitea.
8. Agiriak hautatu eta garbitzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### KATALOGAZIOKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Arabako Fournier Karta Museoaren ondare funtsak aztertzea.
2. Arabako Fournier Karta Museoaren ondare funtsak katalogatu eta sailkatzea.
3. Deskribapen eta katalogazio tresnak sortzea.
4. Dokumentu tipologiak ezarri eta bateratzea.
5. Funtsak eta agiriak ordenatu eta zaintzea.
6. Zerbitzuko langileekin elkarlanean aritzea dauden funtsen balorazioan, eskuratzean, instalazioan eta zabalkundean, baita zentroaren informatizazioan ere.
7. Erabiltzaileak informatzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### KATASTROKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Katastro lanak egiten dituzten enpresak kontratatzeke Baldintza Teknikoen Pleguak prestatzea.
2. Enpresa esleipendunei emandako katastro lanen gauzatzea zuzendu eta kontrolatzea.
3. Landa eta Hiri Higiezinaren Katastroak eguneratuta mantentzea.
4. Era askotako ondasun higiezinaren Balio Txostenak idatzi eta lantzea.
5. Kontratatutako enpresek egiten dituzten Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko merkatu azterlanak kontrolatu eta zuzentzea.
6. Era askotako hiri ondasun higiezinaren gaineko Balioespenak egitea.
7. Katastroaren eta Balioespenaren gaineko kontsultei buruz informazioa ematea partikularrei, AFARI eta beste Administrazioei.
8. Sistema eta prozesua kudeatu, zuzendu eta kontrolatzea hauek katastratzeko: obra berriak, egintza juridiko dokumentatuak, banantzeak, zatitzeak, elkartzeak, birzatikitzeak, jabego horizontala...
9. Katastroari eragiten dioten Hirigintza Balioespenak (mugaketak, sailkapenak, lur kalifikazioak) kudeatzea.
10. Katastro Balioespenen Arau Teknikoak idatzi eta eguneratzea.
11. AFARI kontratatutako zerbitzuak ematen dituzten enpresek egindako lanak gainbegiratzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

110



### LURZORUA KUDEATZEKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Lurren, eraikinen, instalazioen eta ondasunen gaineko eskubideak peritatzea.
2. Desjabetuen balioespen orrien gaineko irizpena ematea eta administrazioaren balioespen orriak egitea, hala badagokio.
3. Negoziazioak bi alderdiek elkarrekin adostuta bideratzea, balio justua erabakiz; edo, hala badagokio, salerosketaren prezioa, ondasunen eta eskubideen titularrekin bilerak eginda.
4. Okupatu aurreko aktak edo, hala badagokio, okupazio aktak egitea.
5. Balio justuaren gaineko aktak egitea, bi alderdiak ados jarrita.
6. Merkatu azterketak egitea, lurzoruaren eta eraikinen balioaren gainean.
7. Aholkua eta informazioa ematea Arabako Foru Aldundiari, toki erakundeei, desjabetzaren prozeduren eraginpean daudenei eta, oro har, herritarrei.
8. Desjabetze hitzarmenak egiten parte hartzea.
9. Desjabetzeen inguruan laguntza teknikoa emateko kontratatuko enpresek egindako lana gainbegiratzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

111



### ZAHARBERRIKUNTZA LABORATEGIKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Zaharberrikuntza Zerbitzuan sartzen diren objektu eta obrei egin behar zaizkien azterlan eta analitika fisiko-komikoetan saiakuntzak egiteko teknika berriak garatzeko protokoloak sortzea (indarreko araudiarekin bat).
2. Artelanei aplikatzen zaizkien materialen zahartzeari buruzko azterlanak egiteko protokoloak garatu eta ezartzea.
3. Egindako analisien emaitzei buruzko txostenak egitea.
4. Biltegiatzea kontrolatzea, erabilera ona egiten dela (laneko arriskuen prebentziorako betekizunak betetzen diren) ikuskatzea, eta zaintze eta zaharberritze produktu kimikoen nahiz disolbatzaileen erosketak kudeatzea.
5. Kanpoko laborategietara bidaltzen diren laginak kudeatzea, eta kooperazio eta lankidetzara harremanak ezartzea berezkoak dituen gaietan beste laborategi eta ikerketa zentro batzuekin.
6. Parametro fisiko-kimikoak (ph, tenperatura, hezetasun xurgapena, eroankortasuna, porositatea...) neurtzea kultura ondasunen gainean egiten diren azterlan eta tratamenduetan.
7. Ehun zuntzen laginak (animalia nahiz landare jatorrikoak) eta geruza piktorikoak muntatzea, gure laborategian mikroskopioekin behatzeko, identifikatzeko eta argazkiak ateratzeko. Hori guztia, zuntz eta pigmentu mikroskopiari buruzko atlasekin erkatuta.
8. Probeta metalografikoak prestatzea erretxinan sartuta, arkeologia objektuetatik ateratako lagin metalikoen, eraso kimikoen, behaketa mikroskopikoen eta argazkien bitartez. Ahal den neurrian, osagaien morfologia eta banaketa identifikatzea, bai eta teknika metalurgikoak ere, metalografia atlas batekin erkatuta.
9. Narriadura produktuen ikerketa mikroskopikoak eta argazkiak egitea, beroriek identifikatze aldera (korrosio produktuak, konkretzioa, zarakarrak, orbanak eta mikroorganismoak).
10. Gatz disolbagarri eta disolbaezinak (kloruroak, karbonatoak, sulfatoak etab.) identifikatzeko proba kimikoak eta test kualitatiboak egitea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### MANTENTZEKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Instalazioen mantentzearekin lotutako instalazio eta obra proiektuak prestatzen laguntzea.
2. Instalazio berrien obrak zein dagoeneko dauden instalazioen erreforma obrak zuzendu eta kontrolatzea.
3. Instalazioen eta kapital ondasunen mantentze zuzentzailea kontrolatzea, bai eta instalazioen eta kapital ondasunen prebentziozko mantentzea eta mantentze prediktiboa ere.
4. Mantentze Zerbitzuaren ardurapeko instalazioetan matxurak antzeman eta zuzentzeko laguntza teknikoa ematea.
5. Mantentze kontratuak dituzten enpresen jarduketak (Industriak behartutakoak) antolatzea eta ikuskatzea.
6. Bai instalazioetan sartzen diren hirugarrenen enpresetako langileak, bai kasu bereziak direla-eta (hala nola larrialdiak, tximistek eragindako matxurak, uholdeak, manifestazioak, sabotajeak eta abar) hornitu behar diren materialak, aurreikusi eta planifikatzea.
7. Kontratutako lan bakoitzaren egoera, epeak eta desbideratzeak ikuskatzea.
8. Zerbitzuaren mantentze integrala egiteko behar diren osagaien eta materialen berezko biltegiatzea erregulatu eta kontrolatzea, baita Mantentze Zerbitzuaren ardurapeko makinak, lanabesak eta ekipoak ere.
9. Mantentze integralaren kontrolerako, diagnosi parametroen kontrolerako, lana planifikatu eta antolatzeko, energia kontsumoetarako eta abarrerako ereduak balioak tratatzea eta informatikoki garatzea.
10. Lan arloko segurtasun eta higiene neurriak betetzen direla ikuskatzea.
11. Arabako Foru Aldundiari atxikitako erakundeen eta erakunde autonomoen arduradunei aholkularitza teknikoa eskaintzea.
12. Beste erakunde eta konpainia ofizialen arduradunekin lan harremanak hastea, besteak beste laneko egitekoetan, energien horniduran, jakinarazpenen igorpenean, segurtasun ekintzetan eta beste hainbat alderditan kidekoak direnean.
13. Txostenak, kalkulu teknikoak, azterlanak eta abar egitea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

113



### HERRILANETAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Eraikuntzari, errepideetako obra eta erabilerei, eta horien babes azalerei buruzko zaintza baimenak ikuskatzea eta horien gaineko informazioa ematea.
2. Urteko edukiera plana prestatu eta aldatzea, edukiera neurketetan landutako datuak aztertuta, bai eta datu bilketa hobetzeko behar diren ekipoak eta instalazioak proposatzea ere.
3. Pisu murriztapenak dauzkaten errepideetan ibilgailuak ibiltzeko baimenak ikuskatzea eta horien gaineko informazioa ematea.
4. Obra proiektuak egitea, beharrak eta baliabide eskuragarriak aztertuz.
5. Herrilan Sailekoak ez diren profesionaleri eskatutako proiektuen idazketa zuzendu eta kontrolatzea.
6. Obrak zuzentzea.
7. Obra egikaritu ahala, hura ikuskatzea.
8. Obrek zerbitzu publiko eta partikularretan duten eragina kontrolatzea.
9. Partikularrek aurkeztutako askotariko erreklamazioak aztertzea, obrak egikaritu bitartean zerbitzuak egindako hainbat jarduketa direla-eta.
10. Berehalako nagusiarekin elkarlanean aritzea, agintzen zaizkion eta lanpostuarekin bateragarriak diren lan eta egitekoetan, hala nola lurzoruari buruzko datuak biltzea eta aurrekariak aztertzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### HISTORIA ONDAREKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. AFAk partaidetza daukan Arabako Historia Ondareari eta Apezpikutzeta-AFA Batzorde Mistoak partaidetza daukan Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Apezpikutzaren Historia Ondareari dagozkien eraikitze, berritze, birgaitze eta urbanizatzeko obren egikaritze materiala ikuskatzea.
2. Higiene eta segurtasun arauak ikuskatzea eraikitze, berritze eta birgaitze obretan.
3. Zerbitzuan garatutako proiektuen agiri grafikoak egiten parte hartzea, eta kanpoko kontraten bidez egindako proiektuak egiten aholkularitza ematea.
4. Obraren egikaritze materialari dagokionez ikuskapena behar duten proiektuen aurrekontua eta neurketen egoera egitea.
5. Txostenak egitea, eskaerei erantzutea eta egitate zehatzei buruzko informazioa ematea.
6. Lehiaketetara aurkeztutako plikak aztertzea eta eskaintza ekonomikoak balioestea, txostenak egiteko, adjudikazio proposamenetarako eta zuzeneko kontrataziorako.
7. Zerbitzutik bultzatutako sustapen ekintzen babespean jasotako laguntza eskaerak aztertu eta sailkatzeko lanetan parte hartzea, Zerbitzuko buruarekin batera.
8. Fakturen ordainketa onartu edo ukatzeko proposamena egitea, horietan zehaztutako egin den edo ez kontrolatuz.
9. Zerbitzukoak ez diren pertsona eta/edo erakundeekin harremanak ezartzea, helburu komunak aztertu, planifikatu eta programatzeko.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

115





### GIZARTE SUSTAPENEN ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Hitzarmenen eta dirulaguntzen deialdien urteko oinarriak egin, aztertu, eta, hala badagokio, eguneratzea, bere eskumen arloko proiektuetarako.
2. Zerbitzuaren eskumen arloko deialdi ezberdinetan ezarritako irizpideei eta betekizunei buruzko informazioa ematea Arabako erakundeei.
3. Proiektuen proposamenen berrikuspen teknikoa egitea: betekizunak betetzen diren egiaztatzea, balioespenak egitea, bideragarritasun txostenak, eta abar.
4. Urte horretan eta aurreko urteetan onartutako proiektuak kontrolatzea eta horien jarraipena egitea. Hala badagokio, zuzenketa ekintzak proposatzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### ZAHARBERRIKUNTZAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Probintziako historia ondareko artelanetan esku hartzea; horretarako, kontserbazio eta zaharberrikuntzako trataerak egingo ditu edo prebenitzeko eta segurtasuna bermatzeko neurriak aplikatuko ditu.
2. Baldintza teknikoen agirietan zehaztutakoaren arabera hirugarrenei esleitutako zaharberritze lanak nola egiten diren kontrolatzea.
3. AFarenak diren artelanen lekualdatzeak gainbegiratzea.
4. Bere arloko gaiei buruzko txostenak eta azterketak egitea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoen hala agintzen badute.*

**MENDI ZERBITZUKO TEKNIKARIA**

1. Planak eta proiektuak idaztea eta bideratzea, Arabako Lurralde Historikoko mendi publikoetako ondarea babestu eta zaintzeari dagokionez.
2. ALHko baso jabetza publikoarekin loturiko gaiei buruzko informazioa ematea.
3. ALHko mendi publikoetan mugak eta mugarriak jartzeko espedienteen instrukzioa eta izapideak egitea.
4. ALHko mendi publikoen legezko saneamendua egiteko obrak eta zerbitzuak nola gauzatzen diren kontrolatzea.
5. Arabako onura publikoko mendien katalogoa kudeatzea.
6. Arabako mendi publikoetako balorazio ekonomikoak egin eta bideratzea.
7. Klausula ekonomiko eta administratiboen agiriak idaztea eta kontratazio mahaietan parte hartzea.
8. Basoak mantendu, hobetu eta garatzeko laguntzen izapideak egitea.
9. Datuak bildu, sailkatu eta estatistikoki lantzea, Arabako mendi publikoetako luberritzei dagokienez.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### MUSEOETAKO TEKNIKARIA

1. Museoaren bildumaren funtsak kudeatu eta ikertzea.
2. Museoaren funtsak ikertzeko, horien argazkiak ateratzeko, eta dokumentazio grafiko eta analitikoaren egiteko baimenak kudeatzea.
3. Museo bakoitzaren alorrari lotutako ondare funtsak eskuratzeko proposamenak dokumentatzea.
4. Arloaren ondare funtsak, espezialitatea eta ingurunea katalogatzea.
5. Bildumako funtsak zaharberritzeko programak proposatzea.
6. Funtsak modu antolatuan erakustea.
7. Aldi baterako erakusketen antolaketa kudeatzea.
8. Funtsei eta horien espezialitateari buruzko monografiak egitea eta argitaratzea.
9. Jarduera didaktikoak proposatzea.
10. Jarduera didaktikoak eta bestelako zabalkunde programak antolatzea.
11. Liburutegiko funtsen eskuratzeko kudeatzea.
12. Museo bakoitzaren espezialitatearen alorreko erakundeekin harremanetan egotea, intereseko gaietarako buruzko informazioa trukatzeko.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

**HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO TEKNIKARIA**

1. AFAn euskararen erabilera normalizatzeko dauden planak idazten laguntzea eta proposamenak egitea, eta lanpostuetan hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak esleitzeko lanetan laguntzea eta proposamenak egitea.
2. AFAko lanpostuen zerrendari dagozkion hizkuntza eskakizunen fitxategia eguneratuta mantentzea.
3. AFAko langile funtzionarioen hizkuntza prestakuntzaren beharrianak aztertzea.
4. Bere jarduera arloko gaiei buruzko informazioa hizkuntza normalizaziorako organo eskudunekin trukitzea.
5. Euskalduntze prozesuan inplikaturako langileei informazioa eta aholkularitza ematea.
6. AFAko hizkuntza paisaia normalizatzen laguntzea.
7. ALET programako Trebatzaileen lana koordinatzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

120



### INDUSTRIA SUSTAPENEN TEKNIKARIA

1. AFAREN parte hartzea kudeatzea industria eta teknologia sustatzeko azpiegituren eta sozietateen garapenean.
2. Teknologia eta ekonomia sustatzeko laguntza programak diseinatu, kudeatu eta gauzatzeko.
3. Lankidetzaren hitzarmenen eta programetatik kanpoko diru laguntzen bitartez AFAK ematen dituen laguntzak kudeatzea.
4. Enpresari eta inbertsiogile berriei aholkularitza eskaintzea honako gai hauen inguruan: inbertsioen aldeko laguntza publikoak, I+G, kalitatea, ingurumena eta antzeko beste hainbat.
5. Ekonomia Zuzendaritzako prozedurak eta lan fluxuak aztertzea eta kudeatzea informatikako aholkularitza enpresarekin elkarlanean, zuzendaritza hori informatizatzeke eta arloa hobetzeko proposamenak egiteko.
6. Ekonomia Zuzendaritzaren jarduketari buruzko informazioa prestatu eta eguneratzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### ZERGABILKETAKO TEKNIKARIA

1. Zergei buruzko informazioaren erabiltzaile potentzial guztien informaziorako sarbidearen segurtasuna kontrolatzea.
2. Zergapekoen Fitxategi Zentralaren eguneraketa kontrolatzea.
3. Zerga aitortzen dituen datuak grabatzeko eta eskaneatzeko kontratatutako kanpo enpresak garatzen dituen jarduketak kontrolatzea.
4. Zerga-informazioko sarrera eta irteeren jarraipena egitea.
5. Estatistika edo/eta Ekonomia txostenak egitea.
6. Laguntza teknikoa ematea aurreko zereginetan.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

**AGIRITEGI ETA LIBURUTEGIETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA**

1. Agiritegiaren kudeaketa hobetu, azkartu eta erraztuko duten jarduerak proposatzea Zerbitzuaren buruari.
2. Agiri funtsak antolatzea.
3. Kontsulten gaineko informazioa ematea kanpoko zein barruko erabiltzaileei.
4. Agiritegiaren datu basea kudeatzen duen sistema informatikoa diseinatzeko prozesuan laguntzea.
5. Dokumentazioa antolatzeko enpresek egindako programen funtzionamendua eta prestazioak ziurtatzea.
6. Gordailuan edo dohaintzan emanda dauden edo eskuratu diren funtsen sarrera dokumentala sustatzea eta baloratzea.
7. AFaren Kudeaketa Agiritegien arduradunei agiritegi alorreko prestakuntza ematea eta antolatzeko laguntza teknikoa ematea.
8. Agirien transferentziei dagokienez, harremanak zehaztea eta ezartzea, unitate organiko desberdinekin.
9. Agiritegia ezagutarazteko jardueretan laguntzea: bisita gidatuak, erakusketak antolatzea, katalogoak argitaratzea, eta abar.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

123





### EHIZA ETA ARRANTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Ehizaren eta arrantzaren alorreko indarreko legediari eta oinarrizko foru araudiari buruzko proposamenak egitea.
2. Abeltzainen, sozietateen eta ehiza barrutien jabeen diru laguntza eta laguntza eskaerak izapidetzea.
3. Honako alor hauetako baimenak izapidetzea: ehiza eta arrantza espedienteak; usategien instalazioa, aldaketa edo ezeztapena; otso populazioak kontrolatzeko neurriak; ehiza barrutiak eratzea edo berritzea; ibilgu publikoen gaineko esku hartzeak.
4. Ondokoen kudeaketa koordinatzea: Kuartangoko ehiza barruti soziala, untxiak birpopulatzeko programa, Arabako arrantza eremuetan arrainak birpopulatzeko plana, eta arrantzaren planifikazioa Arabako arrantza barrutietan.
5. Legearekin bat Araban ezarritako ehiza eta arrantza haztegien jarduera ikuskatzea, bai eta ehiza barruti pribatuetan dauden ehiza industrialeko eremuak ere.
6. Gaixotasun infekzio-kutsakorrei lotutako gorabeheren tasa zehaztea, gaixotasun horiek etxe abereei transmititu diezazkieteken ehiza espezieen artean, baita populazio basatien eta etxeko populazioen arteko hibridazio maila ere.
7. Ehiza antolatzeke plan teknikoaren prestakuntza lanak koordinatzea.
8. Ehiza eta arrantza faunari buruzko azterketa eta lanen kontratazioa izapidetzea.
9. Arabako Ehiza eta Arrantza Lurralde Kontseiluen kide izatea.
10. Ehizari eta arrantzari buruzko dibulgaziozko jarduerak proposatzea.
11. Zerbitzuburuarekin eta atalburuarekin elkarlanean aritzea, basozaintzako lanen programazioan.
12. Arabako Ehiza Barrutien Erakundearekin eta Arabako Lurraldeko Arrantza Federazioarekin egindako hitzarmenak betetzen diren egiaztatzea.
13. Honako gai hauei buruzko informazioa ematea: ehiza espezieen aurka talka egitearen ondorioz trafiko istripuetan jasandako kalteengatiko erreklamazioak, ibilgu publikoetara isuritako substantzia toxikoak, ingurumen eraginaren ebaluazioarako proiektuak egiteak ehiza eta arrantza faunetan izan ditzakeen eraginak, eta ehiza eta ibai arrantza alorretako arau hausteak.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

124



### KIROLETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Eskola Kiroleko Kanpaina prestatu eta kudeatzea.
2. Kirol Zerbitzuan eragina duten proiektu eta jarduketetan laguntza teknikoa eskaintzea.
3. Kirol alorreko espedienteak kudeatzea.
4. Erakunde publikoen artean jarduerak koordinatzea.
5. Kirolaren alorrean aholkularitza eskaintzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### ENOLOGIAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Nolabaiteko prestakuntza maila behar duten ardo produktuen eta deribatuen analisiak egitea (iruzurren analisia, kalitate kontrola, esportazioa...), partikularrentzako, upeltegietarako eta Administrazioako Organismoetarako eskaerei erantzuteko.
2. Laborategiko lana antolatu eta gainbegiratzea eta lan hori banatzea.
3. Laborategiak emandako emaitza analitikoaren ardura bere gain hartzea, informazio izaera dutenak zein zigorgarriak (iruzurrak, esportazioa, kalitate kontrola...) egiaztatuz eta baliozkotuz.
4. Aholkularitza ematea, ardoen tratamenduari buruz planteatutako kontsultei erantzunez, elaboraziotik botilaratzera, horiek analizatuz, proba egokiak eginez eta interesdunekin elkarrizketak eginez.
5. Ardoen kalitatea hobetzeko teknikarik egokienak aztertu, esperimendu eta zabaltzea, tratamendu berriak garatuz, mahatsondo ezberdinen balorazio enologikoa eginez eta egindako ardoen azterketa analitiko eta organoleptikoa eginez.
6. Laborategiaren beharrak aztertzea eta analisi teknika edo metodo berriak garatzea, haren funtzionamendua osatu eta arintzeko.
7. Mahastizaintza taldeak planteatutako esperientzien antolaketa eta garapen enologikoan parte hartzea.
8. Arabako Errioxan mahatsaren heltze prozesuaren astekako jarraipenean parte hartzea, bai eta bariedade esperimentalen jarraipenean ere.
9. Arabako Errioxako mahastizainei prestakuntza eta informazioa ematea, eta ikastaroak ematen eta Zerbitzuaren hileko aldizkaria idazten parte hartzea.
10. Arabako Errioxako ardoak sustatzea, dastaketa komentatuetan eta hitzaldietan parte hartuz.
11. Dastaketa Batzordeetan eta sektoreko bilera teknikoetan parte hartzea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

126

**INGURUMEN EBALUAZIO ETA ZUZENTASUNEN GOI-MAILAKO TEKNIKARIA**

1. Ingurumen analisi, diagnostiko eta zuzentasunaren gaineko txostenak eta ebaluazioak egitea.
2. Ingurumenaren gaineko plangintza garatzea; horretarako, egin beharreko ingurumen analisi, azterlan eta txostenak egingo dira, eta ingurumen baliabide, garapen iraunkor, eta lurraldeko ingurumenaren kalitatea lehengoratu eta hobetzeko estrategiak eta jarduketara planak egin eta garatuko dira teknikoki.
3. Inguru baliotsuak eta ahulak babesteko eta lehengoratzeko plan bereziak planteatu eta garatzea teknikoki.
4. Egoera txarrean dauden eremuak lehengoratzeko planak eta proiektuak egitea eta kudeatzea.
5. Ingurumen azterlanak eta baliabide natural ez berriztagarrien inbentarioak egitean parte hartzea.
6. ALHren ingurumenaren gaineko informazio sistema garatzeko eta eguneratzeko lanetan parte hartzea.
7. Laguntza tekniko ematea, ingurumenaren zuzentze eta lehengoratzeko gaietan, bai eta obrek, jarduerak eta antzekoek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioan.
8. Herritarrei arreta ematea, pertsonalki edo telefonoz.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriarik dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*



### INGURUMENEO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Ingurumena zuzendu eta lehengoratzeko proiektuak idaztea, teknikoki garatzea, ezartzea eta kudeatzea.
2. Obren eta kontrol tekniko eta ekonomikoaren zuzendaritza fakultatiboaren funtzioak betetzea, ingurumena zuzendu eta zaharberritzeko obrak gauzatzean.
3. "El Torco" harrobi zaharreko betetze eremuaren ustiapena eta kudeaketa zuzentzea, gainbegiratzea eta teknikoki kontrolatzea.
4. Ingurumenaren bideragarritasun teknikoaren azterketak egitea eta abandonatuta dauden meatze ustiategietako betetze eremu berriak gaitzeko beharrezko proiektuak idaztea.
5. Proiektuen, planen eta programen iraunkortasunari eta ingurumenaren ebaluazioari buruzko txostenak idaztea.
6. Ingurumena zuzentzeko alorrean laguntza teknikoa ematea.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriari dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

128



### MAHASTIZAINZA ETA ARDOGINTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. Mahastizaintza eta ardogintza alorretako jarduketak ikuskatu eta kontrolatzea.
2. Bere eskumen esparruari dagozkion gaien inguruko aholkularitza tekniko eskaintzea; hartara, ondoko gaien inguruko kontsultak argituko dira: mahats bilketarako unerik egokienari buruzko kontsultak; inbertsioei, landaketei, laguntza ekonomikoei eta antzeko gaien buruzko foru araudiaren, estatuko araudiaren eta Europar Batasuneko araudiaren gaineko kontsultak; eta mahastizaintzako eta ardogintzako ustiapenatarako laguntzei buruzko kontsultak, mahastien berregituraketa eta aseguruia, upeltegietan aplikatu beharreko teknologia eta abar direla eta.
3. Mahastien erregistroa eguneratzea, Arabako Errioxako mahastizain guztien datuak jasota.
4. Arabako Foru Aldundiaren ordezkari aritzea mahastizaintzako eta ardogintzako foroetan (Kontseilu Arautzailea, Eusko Jaurlaritzaren Ardoaren Mahaia, dastatzeak...).
5. Sektoreari lotutako aholku teknikoak eta araudia zabaltzea, zerbitzuaren aldizkariaren edizioan parte hartuz.

\* \* \* \* \*

*Agiri honetan lanpostu bakoitzaren funtsezko egitekoak jaso dira, baina horrek ez du esan nahi eremu funtzional bereko eta bere kategoriarik dagozkion beste egiteko batzuk ez direnik beteko, nagusi hierarkikoek hala agintzen badute.*

129